VITORIA GASTEIZ green capital

# 2023 -2027 ALDIRAKO GOBERNU PROGRAMA

GJH GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

VITORIA GASTEIZ green capital

# 2023 -2027 ALDIRAKO GOBERNU PROGRAMA

Gasteiz eraldatzeko prozesua abian da, helburu argi batekin: **ekintzaren legealdia izatea**. Nahi dugun hiria eraikitzeko ekintza; hiri aktiboagoa, bizitzaz eta aukeraz betea; iraunkorra, ingurumena errespetatzen duena, hobeto konektatua, gizatiarragoa, seguruagoa; berdintasunezkoa, parte-hartzailea, zerbitzu publiko indartsu eta efizienteekin.

Azken batean, **harrotasuna piztu eta etorkizunari positiboki** begiratuko dion Gasteiz.

**Lankidetza, akordioa, erantzukizuna, determinazioa eta anbizioa** dira datozen 4 urteetan planteatzen ditugun helburuak arrakastaz betetzeko oinarria.



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

# IKUSPEGI OROKORRA

6
ARDATZ

14
LAN-ESPARRU

100
KONPROMISO

# PROGRAMAREN ARDATZAK

1. Pertsonentzako hiria, zaintzailea eta inklusiboa
2. Hiri jasangarria
3. Hiri lehiakorra
4. Hiri aktibo eta bizia
5. Auzoen eta herrien hiria
6. Gobernu gertuko eta eraginkorra

| ARDATZA | LAN-ESPARRUAK | KONPROMISOAK |
|---|---|---|
|  1 PERTSONENTZAKO HIRIA, ZAINTZAILEA ETA INKLUSIBOA  | Zainketen hiria | Zainketetan oinarritutako zerbitzuen eredua garatzea |
| | | Gizarte-zerbitzuetan herritarrak artatzeko tresna berriak ezartzea |
| | | Oinarrizko premiak eta gizarteratzea zein laneratzekoak estaltzea |
| | | Etxe-utzarazpenak prebenitzeko bulegoa sortzea |
| | | Etxean Laguntzeko Zerbitzua hobetzea |
| | | Baliabide gehiago eta hobeak adinekoentzat |
| | | Hobekuntzak haur eta nerabeak zein horien familiak artatzeari dagokionez |
| | Hiri gazte, berdinzale eta inklusiboa | Gazteen emantzipaziorako bulegoa sortzea |
| | | Udalaren V. Gazte Plana garatu eta ebaluatzea |
| | | Indarkeria matxistaren aurkako estrategia indartzea |
| | | Berdintasunean eta sexu- eta genero-aniztasunean aurrera egitea |
| | | Emakumeen etxea sendotzea |
| | | Hezkuntzaren arloko estrategia planifikatzea |
| | | Emakumeen kirola, kirol egokitua eta kirol minoritarioa sustatzea |
| | | Diskriminaziorik gabeko hiria eta herritartasun inklusiboa sustatzea, bizikidetzaren oinarri gisa |
| | | Bizikidetzaren Behatokia sustatzea |
| | Hiri seguru eta osasuntsua | Zerbitzuan dagoen agente-kopurua handitzea, eta horien aitorpen profesionala areagotzea |
| | | Bideozaintzaren aldeko apustua |
| | | José Erbina kalean komisaria berria irekitzea |
| | | Udaltzaingoko eta Larrialdi-zerbitzuetako ekipoak eta instalazioak hobetzea |
| | | PSISZ-n plantilla egonkortzea LEP berri batekin |
| | | Kirol arloan ingurune seguruak sustatzea |
| | | Gazteentzako aisialdi osasungarriko programak sustatzea |
| | | Gasteizko III Osasun Plana osatu eta garatzea |
| | | Herritarrentzako ingurune osasungarriak sortzea |

# 1. ardatza: Pertsonentzako hiria, zaintzailea eta inklusiboa

Pertsona guztientzako giza eskubide guztien defentsa izango da Udal Gobernuaren ekintza politikoaren muina. Balio etikoetan eta printzipio demokratikoetan oinarritutako bizikidetzaren alde egingo dugu lan, edozein motatako indarkeriaren deslegitimazio politiko eta sozialaren defentsa irmo eta zentzugabetik abiatuta.

Gasteizko etorkizuna oroimenetik eraikiko dugu. Ahazturarik gabe.

Atsedenik gabe egingo dugu lan guztiontzako aukerak dituen hiri baten alde: familientzat, gazteentzat, adinekoentzat eta, bereziki, behar gehien dutenentzat eta gure laguntza behar dutenentzat.

Ez dugu inor atzean utzi nahi, hiriak aurrera egiten duelako bertan bizi diren pertsona guztiek hala egiten badute: ahulenek, desgaitasunen bat dutenek, adinekoek, gazteek, emakumeek, haurrek edo migratzaileek.

Horrela, hiri gizatiarragoa, irisgarriagoa eta kohesionatuagoa izango dugu, elkartasunaren, errespetuaren, bizikidetzaren eta berdintasunaren balioak landuko dituena.

# 1.1 konpromisoa.- ZAINKETETAN OINARRITUTAKO GIZARTE-ZERBITZUEN EREDUA GARATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Raimundo Ruiz de Escudero Ezkurra |
| **SAILA** | Gizarte Politikak |
| **HELBURUAK** | Gasteizen zainketetan oinarritutako gizarte-zerbitzuen eredua garatzea eta abian jartzea.<br><br>Gizarte-zerbitzuen eredu jakin bat osatzea, halakoa non pertsona guztiek beren komunitatean eman eta jaso ahal izango dituzten eguneroko zainketa, zainketa beharrezko eta desiratu horiek. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Oinarrizko gizarte-zerbitzuei buruzko hausnarketa- eta hobekuntza-prozesuarekin jarraitzea, eta hobekuntzak ezartzea esku-hartze komunitarioan eta profesional sartu berriak lanean hasteko prozesuan.<br><br>Komunitate- zainketetan oinarritutako gizarte-zerbitzuen ereduan sakontzen jarraituko dugu, eredu horren ildotik bideratuko ditugu gizarte-zerbitzuak. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Proiektuen garapenean komunikazioa, parte-hartzea eta sentsibilizazioa hobetzeko plana. |
| Aldabe eta Arana auzoetan adinekoei arreta emateko esperientzia abian jartzea, arta-ibilbideak hobetzeko asmoz. |
| Hobekuntzak ezartzea gizarteratzearen eta laneratzearen zein haur eta nerabeen babesgabetasunaren eremuko ibilbideetan. |
| Etxean laguntzeko hurbileko zerbitzua abian jartzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Herritarrak artatzeko zerbitzuen kalitatea eta abegia hobetzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 1. HELBURUA: Pobrezia desagerraraztea<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea |

# 1.2 konpromisoa.- GIZARTE-ZERBITZUETAN HERRITARRAK ARTATZEKO TRESNA BERRIAK EZARTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Raimundo Ruiz de Escudero Ezkurra |
| **SAILA** | Gizarte Politikak |
| **HELBURUAK** | Gizarte-zerbitzuak eskatzeko bideak hobetzea: telefono bidezko arreta, izapidetze elektronikoa, etab.<br><br>Herritarrei gizarte-zerbitzuei buruz ematen zaien informazioa hobetzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Informaziorako sarbidea eta sentsibilizazioa hobetzea, Gizarte Zerbitzuek irudi positiboa eta doitua eman dezaten, komunitatean hurbileko erreferente bihurtzearren. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| 010 telefonoaren bidez hitzorduak hartzeko arreta-protokoloan aldaketak egiten jarraitzea. |
| Gizarte-zerbitzuen webgunea eta beste tresna batzuk hobetzea. |
| Izapidetze elektronikoa, online hitzorduak, elkarreragingarritasuna eta irakurketa erraza hobetzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Gizarte-zerbitzuekiko harremana eta hurbiltasuna erraztea eta haien eraginkortasuna handitzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 1. HELBURUA: Pobrezia desagerraraztea<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea |

# 1.3 konpromisoa.- OINARRIZKO PREMIAK ETA GIZARTERATZEA ZEIN LANERATZEKOAK ESTALTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Raimundo Ruiz de Escudero Ezkurra |
| **SAILA** | Gizarte Politikak |
| **HELBURUAK** | Jendearen oinarrizko premiei erantzutea.<br><br>Gizarte- zein lan-inklusioa sendotzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Aporofobiaren aurka borrokatzea, fenomeno hori pertsona zaurgarrienen duintasunaren aurkako atentatua baita, eta beharrezko gizarte-kohesioa ahultzen baitu.<br><br>Planteatzen ditugun ekimenen bidez, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen oinarrizko premiak hobeto bete nahi dira. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Gure prestazio ekonomikoak beste erakunde batzuetako prestazioekin hobeto koordinatzea. |
| Gizarteratzeko eta laneratzeko ikastaroen gune berria irekitzea San Bizente Paulekoaren kalean (Gizarteratu). |
| Jantoki soziala irekitzea, toki berean. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Egoera horri erantzuna ematea, hiriko bizikidetza-beharrari erantzuteko eta gure udalerrian pobreziaren aurka borrokatzeko. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 1. HELBURUA: Pobrezia desagerraraztea<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea |

# 1.4 konpromisoa.- ETXE-UTZARAZPENAK PREBENITZEKO BULEGOA SORTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Raimundo Ruiz de Escudero Ezkurra |
| **SAILA** | Gizarte Politikak |
| **HELBURUAK** | Etxebizitzaren galera prebenitzea, eta larrialdiei erantzuteko bizitokiak izatea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritu eta koordinatuz, baita erakunde barruan ere, saihesteko moduko egoerak aldez aurretik ezagutzea, bideratzea edo baliabideak orientatzea, behar denean. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Etxe-utzarazpenak prebenitzeko bulegoa sortzea. |
| Zaurgarritasun-egoeran dauden familientzako etxebizitza-kopurua areagotzea. |
| Proiektu berritzaileak eta esperientzia pilotuak sustatzea, esaterako, belaunaldien arteko bizikidetza. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Prebentziozko jarduketa-prozedurak izatea, pertsonei aholkuak ematen eta bizitoki-baliabideak handitzen laguntzeko. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 1. HELBURUA: Pobrezia desagerraraztea<br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea |

# 1.5 konpromisoa.- ETXEAN LAGUNTZEKO ZERBITZUA HOBETZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Raimundo Ruiz de Escudero Ezkurra |
| **SAILA** | Gizarte Politikak |
| **HELBURUAK** | Mendekotasuna edo zaurgarritasuna aitortuta duten edo horren arriskua duten pertsonei etxean ematen zaien arreta hobetzea.<br><br>Esperientzia berritzaileak ezartzea, hala nola etxean laguntzeko hurbileko zerbitzua. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Etxean laguntzeko zerbitzua baldintza-orri berrietara eta hurrengo urteetako beharretara egokitzea. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| ELZren kontratu berria abian jartzea: intentsitatea handitzea eta zerbitzurako sarbidea hobetzea. |
| Etxean laguntzeko hurbileko zerbitzuaren esperientzia. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Zerbitzua hobetzea eta premia berriak planifikatzea, zerbitzuaren profesionalizazioa hobetuz. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 1. HELBURUA: Pobrezia desagerraraztea<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea |

# 1.6 konpromisoa.- BALIABIDE GEHIAGO ETA HOBEAK ADINEKOENTZAT

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Raimundo Ruiz de Escudero Ezkurra |
| **SAILA** | Gizarte Politikak |
| **HELBURUAK** | Kalitatea hobetzea, arreta eta beste alor batzuk humanizatuz.<br><br>Ostatu- eta eguneko arreta-baliabideak handitzea, beharrei erantzuteko. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Jantokiko, etxebizitza komunitarioetako, zerbitzuetako eta eguneko arretako plazak handitzea eta zerbitzu horien kalitatea hobetzea. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Osasun-parke berriak: Judimendi, Prado. |
| Jantokiko plazak handitzea. |
| Etxebizitza komunitario gehiago San Prudentzio egoitzan eta beste leku batzuetan. |
| Zaramagako BIZAN eraberritzea eta eguneko arretarako zerbitzu berria sortzea bertan. |
| Zainpeko apartamentuak 1. gradua duten pertsonentzako baliabide gisa finkatzea, bizikidetza-ordutegien estaldura. |
| MAITEKIren ekintza berriak bultzatzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Zerbitzu gehiago izatea, eskatzaileen premia eta profil berrietara egokituta. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 1. HELBURUA: Pobrezia desagerraraztea<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea |

# 1.7 konpromisoa.- HOBEKUNTZAK HAUR ETA NERABEAK ZEIN HORIEN FAMILIAK ARTATZEARI DAGOKIONEZ

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Raimundo Ruiz de Escudero Ezkurra |
| **SAILA** | Gizarte Politikak |
| **HELBURUAK** | Haurrentzako tokiko plana, eta haur-babesgabetasun ZEIN -indarkeria kasuak artatzeko prozeduretan. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Haurren pobreziaren aurkako borrokari, hots, Haur Bermearen Euskal Estrategiari, atxikitzea, erronka horiei erantzuteko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| III. HANUP onestea. |
| Barnahus abian jartzea. |
| Concilia proiektuan lekuak handitzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Biztanle sektore hori ezagutzea, beharrak, premiak eta eraikitzen ari diren bizi-proiektuak baitituzte. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 1. HELBURUA: Pobrezia desagerraraztea<br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea |

# 1.8 konpromisoa.- GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO BULEGOA SORTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna |
| **HELBURUAK** | Baliabideak handitzea gazteek hirian emantzipatzerik izan dezaten.<br><br>Udalak emantzipaziora daraman bidean hazkunde pertsonalerako prozesuetan gazteei eskaintzen dizkien zerbitzu eta programa guztiak integratzea, eta prozesu horiek erraztea.<br><br>Hiriko gazteak emantzipatzeko tresnak ahalbidetu eta hobetzen dituzten jarduerak eskaintzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gazteentzako erreferentzia-gune bat abian jartzea, emantzipazio-prozesuetan laguntza eta orientazioa dutela senti dezaten.<br><br>Horrek Gasteizko Udala Euskadiko gazteen emantzipazioa sustatzeko sarean sartzea ekarriko du. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmena onartzea. |
| Emantzipaziorako Bulegoa irekitzea. |
| Emantzipaziorako baliabideak bateratzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Gazteak hirian bertan emantzipatzeko prozesuak erraztea. |
| Udala erreferentea izatea gazteentzat, emantzipaziorako baliabideen arloan. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 8. HELBURUA: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa<br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea<br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak<br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak |

# 1.9 konpromisoa.- UDALAREN V. GAZTE PLANA GARATU ETA EBALUATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna |
| **HELBURUAK** | Gazteek  hirian eta gazteekin lotutako udal politikan protagonista izan daitezen, horretan parte hartu dezaten eta inplikatu daitezen bultzatzea.<br><br>Gazteek beren bizi-proiektuak hirian gara ditzaten erraztea, proiektu eta ideietan laguntza eta aholkularitza emanez. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gazte Planean programatutako ekintzak abian jartzea, udal talde politikoen adostasunarekin eta hiriko gizarte- eta gazte-eragileen parte-hartzearekin landu baitzen.<br><br>Elkarte- eta gazte-sarea inplikatzea ekintzak eta, oro har, plana gauzatzen eta ebaluatzen, Udalaren gazteria-politikan aurrera egin ahal izateko.<br><br>Udalaren gazteria-politika ebaluatzea eta Udalaren hurrengo Gazte Planaren lanketan aurrera egitea. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| V. Planaren exekuzioaren hasiera. |
| V. Planaren exekuzioaren amaiera. |
| VI. Gazte Plana ebaluatu eta lantzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Gazteak hirian bertan emantzipatzeko prozesuak erraztea. |
| Udala gazteentzat erreferentea izatea emantzipaziorako baliabideen arloan. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 8. HELBURUA: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>16. HELBURUA: justizia eta erakunde sendoak |

# 1.10 konpromisoa.- INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO ESTRATEGIA INDARTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna |
| **HELBURUAK** | Indarkeria matxista prebenitzen laguntzea, balioetan heziz; batez ere, nerabeei eta gazteei dagokienez.<br><br>Indarkeria matxistaren biktimei arreta eta laguntza emateko udal zerbitzuak egokitzea.<br><br>Banakoek eta taldeek kaltearen erreparaziorako duten eskubidea eta salaketa publikoa sustatzen jarraitzea.<br><br>Hiriko funtsezko eragileenganako deribazioa eta erantzunkidetasun komunitarioa indartzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, eta emakumeei eragiten dien genero-desberdinkeriaren adierazpenik larriena da, baita sexu-orientazioagatik, edo genero-identitate edo adierazpenagatik indarkeria eta diskriminazioa jasaten duten pertsona guztiei eragiten diena ere.<br><br>Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren arloan sentsibilizazio-, prebentzio-, detekzio-, arreta- eta erreparazio-jarduerak egiteko konpromisoa hartu du, Berdintasunerako V. Planaren bidez. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Gazteen artean ziberindarkeria prebenitzeko eta antzemateko kanpaina espezifikoak garatzea. |
| Ikusgune – LGTBIfobiaren aurkako behatokia sendotzea, homofobiaren, lesbofobiaren, bifobiaren eta transfobiaren aurka etengabe behatzen jarduteko. |
| Sailarteko eta erakundearteko koordinazioa, indarkeria matxistarik gabeko hiria izateko bidean aurrera egiteko. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Indarkeria matxistarik gabeko hiria izateko bidean aurrera egitea. |
| Udala erreferentea izatea indarkeria matxista mota oro pairatzen duten pertsonentzat. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 5. HELBURUA: Genero-berdintasuna<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>16. HELBURUA: justizia eta erakunde sendoak |

# 1.11 konpromisoa.-BERDINTASUNEAN ETA SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNEAN AURRERA EGITEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna |
| **HELBURUAK** | Lan egitea Gasteiz berdintasunezko hiria izan dadin.<br>Sexu- eta genero-aniztasuna ikusaraztea.<br>Genero-berdintasuna udal-gobernuaren ereduan txertatzea.<br>Herritarrek udal-politika publikoetan parte har dezaten bultzatzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Helburua da hiri berdinzaleago, inklusiboago eta jasangarriago bat izateko bidean aurrera egitea; emakumeak sektore sozial eta ekonomikoetan duen zeregina ikusaraztea; genero-berdintasuna udal gobernuaren ereduan txertatzea, eta talde feministek eta emakumeen zein LGTBI pertsonen taldeek Emakumeen Etxeko Etxegunean parte har dezaten bultzatzea, baita Berdintasun Elkargunean ere. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Emakumeek hainbat sektoretan (gizartea, ekonomia, zientzia...) duten zeregina aitortzeko sari bat sortzea. |
| Adineko emakumeak eta LGBTI adinekoak ahalduntzera bideratutako ekintzak diseinatu eta eskaintzea, genero-ikuspegi intersekzional batetik. |
| Etxearen barruan ekimen eta proiektu berriak abian jartzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Hiri berdinzaleagoa izateko bidean aurrera egitea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 5. HELBURUA: Genero-berdintasuna<br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea<br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br>16. HELBURUA: justizia eta erakunde sendoak<br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak |

# 1.12 konpromisoa.- EMAKUMEEN ETXEA SENDOTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna |
| **HELBURUAK** | Elkarte feministei eta LGTBI elkarteei Emakumeen Etxeko espazioen eta baliabideen lagapena zabaltzea, haien lana ikusarazten eta sendotzen laguntzeko.<br><br>"Eleen Ganbara liburutegi feminista" proiektua bultzatzea Emakumeen Etxean.<br><br>Jabetze Feministarako Eskola, topaguneak eta zerbitzuak eta baliabideak indartzea Emakumeen Etxearen barruan.<br><br>Emakumeen Etxearen barruan sortutako proiektu eta ekimenei laguntzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Ahalduntze feminista tresna giltzarria da, errealitate eta premia espezifikoak —horien aniztasuna kontuan hartuta— ikusarazteaz gain, haien interes estrategikoei mesede egiteko prozesu kolektiboak sustatzeko balio du.<br><br>Emakumeen Etxeak erreferentziazko espazioa izan nahi  du, ahalduntze feministaren inguruko prestakuntza-, hausnarketa-, truke- eta partaidetza-jarduerak ikusarazteko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Emakumeen Etxea irekitzeko ordutegia eta, beraz, erabiltzeko aukerak, zabaltzea. |
| Adineko emakumeak eta LGBTI adinekoak ahalduntzera bideratutako ekintzak diseinatu eta eskaintzea, genero-ikuspegi intersekzional batetik. |
| Etxearen barruan ekimen eta proiektu berriak abian jartzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Hiri berdinzaleagoa izateko bidean aurrera egitea. |
| Topaketarako eta prestakuntzarako gune bat izatea, ahalduntze feministan interesa duten pertsona guztientzat irekia. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 5. HELBURUA: Genero-berdintasuna<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>16. HELBURUA: justizia eta erakunde sendoak<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak |

# 1.13 konpromisoa.- HEZKUNTZAREN ARLOKO ESTRATEGIA PLANIFIKATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña |
| **SAILA** | Kultura eta Hezkuntza |
| **HELBURUAK** | Hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatekoa bermatzea, eta bizi osoan ikasteko aukerak sustatzea, denontzat.<br><br>Hezkuntza-planak eta hezkidetza-plan espezifikoa ezartzea haur-eskoletan. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Tresna horiek osatzen dute haur-eskoletako hezkuntza-jardueraren ibilbide-orria.<br><br>Hezkuntzako I. Gida Planak lan-ildo hauek biltzen ditu: lehen haurtzaroko hezkuntza; hezkuntza-jarduera eremu formalean eta ez-formalean; ekitatea eta hezkuntzarako eskubidearen bermea; hezkuntza eta espazioaren eta denboraren erabilerak, baita hezkuntza-eremuko gaikuntza, laguntza eta partaidetza ere.<br><br>I. Hezkidetza Planak aurrekoa osatzen du. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Jarduteko beharrak eta lehentasunak zehaztea. |
| Egin beharreko jarduketak hautatzea, prozesu parte-hartzaile baten bidez. |
| Obrak kontratatzeko baldintza-agiriak lantzea. |
| Proiektuak gauzatzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Udalaren haur-eskolek balioetan oinarritutako hezkuntza sendoa eskaintzea, beren kargura seme-alaba adingabeak dituzten herritar guztientzat eskuragarri dagoena; izan ere, zerbitzuaren doakotasuna eta kalitate handia kontuan hartuta, askotan haur batzuek dituzten jatorrizko desberdinkeriak konpentsatzeko berme bihurtzen da. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 4. HELBURUA: Kalitatezko hezkuntza<br><br>5. HELBURUA: Genero berdintasuna |

# 1.14 konpromisoa.- EMAKUMEEN KIROLA, KIROL EGOKITUA ETA KIROL MINORITARIOA SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetza |
| **HELBURUAK** | Kirolean emakumearen ikusgaitasuna lortzea.<br><br>Jarduera fisiko egokituan espezializatutako eragileekin lan egitea, herritarrei kirolean aritzeko aukera eskaintzeko, haien egoera fisikoa edozein delarik.<br><br>Kirol-modalitate minoritarioetan aritzen diren kolektiboei laguntzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Plan bat garatuko dugu, gure hirian emakumeen kirola, kirol egokitua eta kirol minoritarioa sustatzen duten entitate, federazio eta ekitaldiei laguntzeko zenbait neurrirekin: kuota murriztuak, dirulaguntzen deialdia, ikusgarritasuna, ekitaldiak antolatzen laguntzea, etab. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Ekintza positiboak emakumeek kirola egin dezaten. |
| Kirol egokituko jarduerak sustatzea. |
| Kirol-modalitate minoritarioen praktika sustatzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Kirol-eskaintza zabala, inklusiboa eta berdinzalea izatea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 4. HELBURUA: Kalitatezko hezkuntza.<br><br>5. HELBURUA: Genero berdintasuna.<br><br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak.<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantza. |

# 1.15 konpromisoa.-DISKRIMINAZIORIK GABEKO HIRIA ETA HERRITARTASUN INKLUSIBOA SUSTATZEA, BIZIKIDETZAREN OINARRI GISA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Pascual Borja Borja |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna.<br>Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Gasteiz diskriminaziorik gabeko hiri bihurtzea, non biztanle guztiei tratu- eta aukera-berdintasuna bermatuko baitzaie.<br><br>Gasteiz erreferente bihurtzea aniztasunarekiko begiruneari dagokionez.<br><br>Herritartasun inklusiboa sustatzea; egoera hori pertsonek komunitateko bizitzan osorik parte hartuz, nortasuna partekatuz eta eskubideak berdintasunez eskuratuz lortzen da. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Tokiko gaitasunei esker, herritartasun kohesionatu bat eraiki daiteke, eskubideak eta betebeharrak aitortzen dituena, polarizazioak saihesten dituena eta bizikidetza baketsuari bide ematen diona.<br><br>Memoria historikoak bere gain hartzen du ahaztu behar ez dena gogoratzeko betebehar etikoa: biktima jasandako bidegabekeria. Horrela, biktimen memoria memoria historikoaren ardatz egituratzailea da, eta, horrela, egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko prozesuak bultzatzen ditu, funtsezkoak baitira bakea eta bizikidetza berrezartzeko indarkeriazko gatazka gertatu den testuinguruetan. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Memoria kolektiboki eraikitzea eta zabaltzea. |
| Irisgarritasunaren Kudeaketa Integraleko Plana idaztea. |
| Erlijio Aniztasunaren Foroa. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Hiri berdinzaleagoa, solidarioagoa eta inklusiboagoa izateko bidean aurrera egitea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 10. HELBURUA. Desberdintasunak murriztea<br><br>10.2. Pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa bultzatzea eta sustatzea<br><br>10.3 Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak |

# 1.16 konpromisoa.- BIZIKIDETZAREN BEHATOKIA SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Pascual Borja Borja |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna.<br>Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Elkarbizitzaren egoeraren ingurukoak ikertzea.<br><br>Esku-hartze komunitarioko proiektuak diseinatu eta abiaraztea.Herritarrak bizikidetza-gaitasunetan trebatzea.<br><br>Gatazkak konpontzeko bitartekaritza-tresnak ezartzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Bizikidetzaren Behatokia gatazka-egoerak prebenitzeko edo horietan esku hartzeko prozesu komunitarioak dinamizatzeko asmoz sortutako tresna da.<br><br>Horrez gain, tresnak errealitatea ikertzeko aukera eskaintzen du, bai eta gatazkak eta beste auzi batzuk modu positiboan konpontzeko prestakuntza ere, hartara harreman-gaitasunak hobetzeko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Udalerriko bizikidetza-alderdiei buruzko azterlan bat egitea. |
| Proiektu komunitarioak ezartzea udalerriko entitate eta kolektiboekin. |
| Bitartekari izateko eta gatazkak kudeatzeko esku-hartzeak. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Hiri berdinzaleagoa, solidarioagoa eta inklusiboagoa izateko bidean aurrera egitea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK** | 10 HELBURUA: Desberdintasunak murriztea.<br><br>10.2: Pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa bultzatzea eta sustatzea<br><br>10.3: Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak. |

## 1.17 konpromisoa.- ZERBITZUAN DAGOEN AGENTE-KOPURUA HANDITZEA, ETA HORIEN AITORPEN PROFESIONALA AREAGOTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Zerbitzuan dauden agenteen kopurua handitzea, kaleetan segurtasun handiagoa egon dadin. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Ekimen honen bidez jauzi kualitatiboa eman nahi zaio Udaltzaingoaren lanari, delituen prebentzioan oinarritutako zerbitzu-eredua garatuta, zein polizia-lanaren hiru adarretako bat baita, ikerketa- eta neutralizazio-zereginekin batera. Prebentzio-eredu horrek kale eta auzoetan poliziaren presentzia areagotzea eskatzen du, eta, hartarako, lanean aritzeko moduan agente-kopurua handitzea.<br><br>Gainera, langileen kudeaketa hobetze eta aitorpen profesionala bultzatze aldera, hemendik aurrera deituko diren Udaltzaingoko LEPetan deialdi bateratuaren ereduaren alde egingo dugu, langile-beharra modu azkar eta bizkorrean izapidetzeko ondoen egokitzen den eredua delako. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Giza baliabideen barne-kudeaketa. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Konpromiso honek hiru xede ditu: langileen lan-baldintzak hobetzea, lan-absentismoa (arrazoi edozein delarik) murriztea, eta kaleetan poliziaren presentzia handiagoa bermatzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK** | 16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak |

# 1.18 konpromisoa.- BIDEOZAINTZAREN ALDEKO APUSTUA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Hiriko zenbait lekutan segurtasuna hobetzea. Delitu-egintzak prebenitzeko mekanismoak ezartzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Agintaldiko lehen hilabeteetan, kokapen estrategikoetan bideozaintzako 17 kamera berri instalatzeari ekingo zaio. Gailu teknologikoki aurreratuak dira, eta orain arte erabiltzen ziren kamerek baino prestazio handiagoak dituzte, bereizmen handiagoari edo irudiaren analisi adimentsuari esker.<br><br>Hori lehen urratsa da delituak prebenitzeko eta ikertzeko funtsezko tresna gisa funtzionatuko duten bideozaintzako irtenbideak hartzeko. Horretarako, datozen urteetan hiri osoan ehun kamera inguru izatera iristeko apustua egin da.<br><br>Gailu horiek oso lagungarriak izango dira gaizkileak identifikatzeko, betiere datu pertsonalak proportzionaltasunez erabiliz eta aplikatzekoa den araudia errespetatuz jokatuz. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Segurtasun-kamera berriak erosteko lizitazioa. |
| Kamerak ezartzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Lan horren bidez, konponbidea eman nahi zaio hiriaren hegoaldeko trafikoari, inguru horretako gidariak kexu baitira. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak |

## 1.19 konpromisoa.- JOSE ERBINA KALEAN KOMISARIA BERRIA IREKITZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Udaltzaingoaren izapideen kudeaketa erdialdera hurbiltzea.<br><br>Langileek zerbitzu horiek ematen dituzten instalazioak eta baldintzak hobetzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Hiriaren erdialdean salaketak izapidetzen espezializatutako komisaria berri bat jartzea planteatzen du proiektuak.<br><br>Horrela, zerbitzu hurbilagoa eta eskuragarriagoa lortuko da pertsona gehiagorentzat, ez baitute Agirrelandara joan beharrik izango horrelako izapideak egiteko.<br><br>Gainera, instalazio horiek nabarmen hobetuko dituzte Udaltzaingoan gai horietaz arduratzen diren langileen lan-baldintzak. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Egokitze-obrak bukatzea. |
| Zerbitzua abian jartzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Lan honen emaitzak herritar ororengandik hurbilago dagoen zerbitzua eskaini nahi du. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak |

# 1.20 konpromisoa.- UDALTZAINGOKO ETA LARRIALDI-ZERBITZUETAKO EKIPOAK ETA INSTALAZIOAK HOBETZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Segurtasuna hobetzea.<br><br>Hiriko segurtasun-kidegoei lanerako material berriak eta hobeak eskaintzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren (PSISZ) beharrei dagokienez, helburu nagusia da langile finko gehiagoz hornitzea eta baliabide materialak hobetzea. Bitarteko horien artean, ibilgailuen flota berritzeko beharra nabarmentzen da, batez beste 17 urte baitute. Urte honen amaieran bi autoponpa-ibilgailu jasoko dira, eta urtean ibilgailu berri bat edo bi eskuratzea da helburua.<br><br>Materialaren berritzea PSISZk erabiltzen duen ekipamendu osora ere hedatuko da. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Ibilgailuen eta materialen erosketa lizitatzea. |
| Ezartzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Lan horren bidez, segurtasuna hobetu nahi da, suteak itzaltzeko lanak eta herritarren segurtasunarekin lotutakoak egiteko bitarteko hobeak erabiliz. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak |

# 1.21 konpromisoa.- PSISZ-N PLANTILLA EGONKORTZEA LEP BERRI BATEKIN

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Prebentzio eta Su Itzaltze Zerbitzuko langileen lan-baldintzak hobetzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Proiektuaren apustua da PSISZn hutsik dauden lanpostu guztiak betetzea, plantillari egonkortasuna emango dion LEP baten bidez, eta egungo bitartekotasun-tasa (% 30ekoa) nabarmen murriztea.<br><br>Era berean, estrategikotzat jotzen da langileen prestakuntza sustatzea, horretarako sailaren baliabideak erabiliz. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| LEP berriaren deialdia. |
| Ebazpena eta langile finkoak lanean hastea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Lan horren bidez, Prebentzio eta Su Itzaltze Zerbitzuko langileei egonkortasun-baldintzak eskaini nahi zaizkie. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak |

# 1.22 konpromisoa.- KIROL ARLOAN INGURUNE SEGURUAK SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetza |
| **HELBURUAK** | Udalaren kirol-instalazio guztietan kirolaz lasai eta gizalegez gozatzea bermatuko duten jarduera-protokoloak lantzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Kirolaren eta aisialdiaren eremuan haur eta nerabeen aurka gerta daitezkeen indarkeria-egoeren aurrean, jarduketa-protokoloak landuko dira, ingurune seguruak sortzeko eta prebentzioa, detekzio goiztiarra eta esku-hartzea ahalbidetzeko.<br><br>Hezkuntzarekin eta kirolarekin lotutako erakunde eta elkarteekin lankidetzan jardungo da protokoloak egiteko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Harmailetan begirunea sustatzeko kanpaina abian jartzea. |
| Jarduera-protokolo bat lantzea. |
| Kirol- eta aisialdi-ekitaldietan protokoloa ezartzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Kirol- eta aisialdi-eremuan haur eta nerabeentzako ingurune seguruak izatea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 4. HELBURUA: Kalitatezko hezkuntza<br><br>5. HELBURUA: Genero berdintasuna<br><br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak |

# 1.23 konpromisoa.- GAZTEENTZAKO AISIALDI OSASUNGARRIKO PROGRAMAK SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna |
| **HELBURUAK** | Baliabideak eskaintzea nerabeak eta gazteak ingurune osasuntsu eta osasungarri batean garatzerik izan dezaten.<br><br>Gazteek beren nortasunaren eraikuntzan parte har dezaten bultzatzea, aisialdi hezigarri eta osasungarriaren bidez.<br><br>Gazteentzako opor-aisialdirako eskaintza hobetzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Aisialdi osasungarriko programak mantendu eta indartzea, lurraldeko beste eragile batzuekiko koordinazioa bilatuz, gazteentzako eskaintza indartzearren.<br><br>Gazteei aholkularitza eta laguntza ematea sor dakizkiekeen problematika pertsonalei aurre egiteko prozesuetan, aholkularitza psikologikoaren bidez. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Gauekoak programaren kontratazio berria hastea. |
| Izan ditzaketen problematika pertsonalei aurre egiteko prozesuetan gazteei aholkularitza eta laguntza emateko baliabideak sustatzea, aholkularitza psikologikoaren bidez. |
| Koordinazio-sareak ezartzea arreta eta eskaintza osasungarria lantzen duten beste eragile batzuekin. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Hiriko gazteentzako baliabide osasungarriak hobetzea. |
| Hiriko gazteen hazkunde osasuntsu eta osasungarriari laguntzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>16. HELBURUA: justizia eta erakunde sendoak |

# 1.24 konpromisoa.- GASTEIZKO III OSASUN PLANA OSATU ETA GARATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetza |
| **HELBURUAK** | Gasteizko III. Osasun Plana lantzea.<br><br>Desberdintasunak murriztea, komunitate-sareak bultzatzea eta osasuna baldintzatzen duten gizarte-elementuak lantzea politika guztietan. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Osasunaren Sustapenaren Atalak definituko ditu helburu orokorrak, Planaren ekintza guztiak gidatu behar dituzten printzipioak, jarduketa-arloak, helburu espezifikoak eta udal-sail eta -zerbitzu bakoitzak garatu beharreko ekintzak.<br><br>Paradigma-aldaketa bat da, sail eta zerbitzu guztiek osasunaren gizarte-baldintzatzaileetan esku hartzea ardatz hartuta: testuinguru ekonomikoa, enplegua, hezkuntza, ingurumen-baldintzak eta sare komunitarioak, besteak beste. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Gasteizko III. Osasun Plana egiten amaitzea. |
| Gasteizko III. Osasun Plana onestea. |
| Gasteizko III. Osasun Planean jasotako ekintzak ezartzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Ingurune berdinzale eta osasungarriaz gozatzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea<br><br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak |

# 1.25 konpromisoa.- HERRITARRENTZAKO INGURUNE OSASUNGARRIAK SORTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetza |
| **HELBURUAK** | Ingurumen-osasunaren alorreko dosierren segurtasun juridikoa hobetzea eta izapideak arintzea, batez ere igerilekuetako eta legionelosi-arriskua duten instalazioetako uraren kontrolari dagokionez.<br><br>Establezimenduen kontrol eta zaintzaren eraginkortasuna handitzea, jarduerak arriskuaren arabera planifikatuz. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Administrazio-izapideetarako tresna informatiko bat garatzea eta laborategia kudeatzeko aplikazio berri bat ezartzea administrazio-aplikaziora konektatuta.<br><br>Horretarako, honako ekintza hauek aurreikusi dira:<br><br>1.- Protokoloak eta informazio-sistema egokitzea (G04 Ikuskapenak eta G02 Higiene- eta osasun-dosierrak).<br><br>2.- Ikuskapenak planifikatzea, arrisku-mailaren arabera. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Kudeaketarako tresna eta aplikazio informatiko berriak garatzea. |
| Ikuskapenen planifikazioa hobetzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Osasungaiztasun-fokuek izan ditzaketen arriskuak murriztea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea<br><br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak |

| ARDATZA | LAN-ESPARRUAK | KONPROMISOAK |
|---|---|---|
|  2 HIRI JASANGARRIA  | Hiria eta klima-aldaketa | Udalaren Jarduera Energetikoaren Plan Orokorra onestea |
| | | Eguzki-energia fotovoltaikoaren tokiko ekoizpena nabarmen handitzea |
| | | Energia-komunitateak bultzatzea |
| | | Energia eta klimaren alorreko udal ekintza garatzea |
| | | Airearen Kalitatea Hobetzeko Ekintza-plana (PAMAS 2023-2026) onetsi eta abian jartzea |
| | | Uholdeen prebentziorako Plana garatzea |
| | Hiria berde eta trinkoa | Gasteizko azpiegitura berdea garatzea |
| | | Eraztun berdearen garapenarekin jarraitzea |
| | | Eraztun urdina sortzea |
| | | Biodibertsitatearen kontserbazioa sustatzea |
| | | Gasteizko nekazaritzako elikagaien estrategia sustatzea |
| | | Herritarrak ingurumen-sentsibilizazioaren inguruan aktibatzea |
| | | HAPO berriaren onespena amaitzea |
| | | Hiri-birgaitzea eta -berroneratzea sustatzea |
| | Mugikortasun jasangarria | Mugikortasun-agenteak sortzea |
| | | Isuri gutxiko eremua ezartzea |
| | | Mugikortasun iraungarria bultzatzea, kutsadura atmosferikoa arintzeko neurri gisa |
| | | Hiriaren hegoaldean ekialde-mendebalde konexioa aztertzeko lantaldea sortzea |
| | | Tranbia Zabalganera eramatea |
| | | Eskola-ingurune seguruak hedatu eta sendotzea |
| | | BEI sisteman hobekuntza gehiago egitea |
| | | Tuvisako flota berritzea |
| | | TUVISAko kotxetegien 3. fasea eraikitzea |

## 2. ardatza: Hiri jasangarria

Gasteiz erreferentea da ingurumenean. Ez da kasualitatea Hiri Adimendunen eta Klimatikoki Neutroen Europako Misiorako aukeratutako 100 hirietako bat izatea.

Agenda 2030ren helburuekin konprometitutako hiria gara, bere ingurunea berotegi-efektuko emisioetan leku neutroa izan dadin. Horren ondorioz, gasen murrizketan eta mugikortasun iraunkor, osasuntsu eta seguru baten garapenean aurrera egiten jarraituko dugu.

Klima-aldaketa da datozen hamarkadetan izango dugun ingurumen-erronkarik handiena, eta horrek eraldaketa ekonomiko eta soziala eragingo du, ikuspegi berritzailetik aurre egingo dioguna.

Airearen kalitatearen alde lan egingo duen hiria izango gara, energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna bultzatuko dituena eta energia-komunitateak sustatuko dituena. Barrurantz hazteko, birgaitzea eta berroneratzea sustatzeko eta landa-eremuarekiko errespetuzko hirigintza lantzeko helburua duen hiria.

# 2.1 konpromisoa.- UDALAREN JARDUERA ENERGETIKOAREN PLAN OROKORRA ONESTEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Euskadiko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen helburuak betetzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteizko Udalaren Jarduera Energetikoaren Plan Orokorrak udal eraikin, instalazio eta ibilgailuen inbentarioa barne hartuko du, baita udal osoaren abiapuntuko energia-egoeraren diagnostikoa ere, udal enpresak barne; energia-kontsumoaren erreferentziako oinarrizko maila ezarriko du, eta estrategia eta ekintza orokorrak eta horien plangintza eta programazioa zehaztuko ditu, legearen helburuak lortzeko. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Udalaren Jarduera Energetikoaren Plan Orokorra onestea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Energia-efizientzia eta diru-aurrezpen handiagoa lortzea udal zerbitzuak ematean. |
| Energia berriztagarriak erabiltzea eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta Ongizatea<br>7. HELBURUA: Energia eskuragarria eta ez-kutsakorra<br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak |

## 2.2 konpromisoa.- EGUZKI-ENERGIA FOTOVOLTAIKOKO POTENTZIA INSTALATUA HANDITZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Udalerriaren barruan tamaina ertain eta txikiko eguzki-instalazio fotovoltaikoen kopurua nabarmen handitzea.<br><br>Udal-eraikin eta -instalazioetan, espazio publikoan (plazak, aparkalekuak, etab.), lurzoru degradatuetan eta abarretan jarritako eguzki-instalazio fotovoltaikoen goreneko potentzia laukoiztea, gutxienez. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Eguzki-energia fotovoltaikoaren tokiko ekoizpena nabarmen handitzea, eguzki-panel fotovoltaikoak instalatuz eraikin publiko eta pribatuetan, espazio publikoan eta aukera-espazioetan (lurzoru antropizatu eta/edo degradatuak).<br><br>Horrela, udalerrian trantsizio energetikoa bultzatuko da eta berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murriztuko dira. Azterlanak egin behar dira. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Exekuzio-, operazio-, mantentze- eta kudeaketa-kontratua. |

| BENEFICIOS PARA LA CIUDADANÍA |
|---|
| Tokiko berotegi-efektuko gasen eta kutsatzaileen emisioak murriztea. |
| Energia kostu txikiagoak. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta Ongizatea<br><br>7. HELBURUA: Energia eskuragarria eta ez-kutsakorra<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak |

## 2.3 konpromisoa.- ENERGIA KOMUNITATEAK BULTZATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Hirigunean eta kontzejuetan energia komunitateen sorrera bultzatzea, komunitate-eraldaketarako bulego baten jardueren bidez.<br><br>Energia berriztagarrien proiektuei lotutako balio-katearen traktore izatea, tokiko ekonomia areagotuz.<br><br>Pobrezia energetikoari aurre egitea, desberdintasunak murriztuz. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteizko komunitate-eraldaketarako bulego berritik lan egitea, herritarrei oro har eta interesa duten eragileei zuzendutako hedapen-, laguntza- eta aholkularitza-ekintzak eginez energia-komunitateak sortzeko, proiektu elektrikoak (eguzki-energia fotovoltaikoa) zein termikoak (tokiko biomasaren aprobetxamendua) garatuz. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Komunitate-eraldaketarako bulegoa sortzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Energia komunitarioko proiektuak garatzeko aholkularitza eta laguntza. |
| Proiektu horietan parte hartzen duten herritarren energia-gastuak murriztea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 7. HELBURUA: Energia eskuragarria eta ez-kutsakorra<br><br>8. HELBURUA: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak |

## 2.4 konpromisoa.- ENERGIA ETA KLIMAREN ALORREKO UDAL EKINTZA GARATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Arintze-helburua: udalerrian dauden jarduera-sektoreek eragindako berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioen murrizketa bizkortzea.<br>Egokitze-helburua: erresilientzia handitzea, klima-aldaketa gradualaren ondorioen eta muturreko gertaera meteorologikoen aurrean.<br><br>Zeharkako helburua: herritarrak eta interesa duten eragile sozial eta ekonomikoak ahalduntzea, udalerrian ekintza klimatikoaren garapenean erantzukide izan daitezen. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Aurreko helburuak lortzeko, Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Planean (PACES 2030) eta Klimaren aldeko Gasteizko Hitzarmenean jasotako ekintzak garatu behar dira, Gasteizek parte hartzen duen Europako misioen esparruan (Hirien Misioa eta Egokitze Misioa). |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Eraikinen eta instalazioen, mugikortasunaren eta abarren energia-eraginkortasuna hobetzea. |
| Klima-babeslekuen eta ibilbide erosoen sarea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea. |
| Klimarekin lotutako arriskuak murriztea; segurtasuna eta ongizatea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 7. HELBURUA: Energia eskuragarria eta ez-kutsakorra<br><br>8. HELBURUA: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak |

## 2.5 konpromisoa.- AIREAREN KALITATEA HOBETZEKO EKINTZA-PLANA (PAMAS 2023-2026) ONETSI ETA ABIAN JARTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Airearen kalitatearen estrategiaren helburuak garatzea, honako hauei dagokienez:<br>• pertsona guztien eta gainerako izaki bizidunen osasuna babestea;<br>• industria-, merkataritza- eta etxe-jardueren eta -iturrien emisioak murriztu, minimizatu eta prebenitzea;<br>• airearen kalitate-mailen kontrola eta jarraipena egitea, eta herritarrei eta funtsezko beste eragile batzuei informazioa ematea;<br>• airearen kutsaduraren arloko sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta hezkuntza. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Ekintza-planak 2030erako Gasteizko Airearen Kalitatearen Estrategiaren helburuak garatzen ditu, osasuna babesteko ekintzen bidez, hala nola airearen kutsadura handiko gertakarietan jarduteko protokolo bat landuz, kutsaduraren jarraipena eta kontrola eginez, monitorizaziorako udal-sarea kostu txikiko ekipoekin zabalduz, eta sentsibilizazio-ekintzak eginez. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Airearen kutsadura handiko gertakarietarako ekintza-plana eta jarduteko protokoloa onestea. |
| Tokiko kutsatzaileen emisioen inbentarioa lantzea. |
| Airea monitorizatzeko udal-sarea handitzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Herritarren osasuna babestea. |
| Herritarrei airearen kalitateari buruzko informazioa ematea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta Ongizatea<br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak |

# 2.6 konpromisoa.- UHOLDEEN PREBENTZIORAKO PLANA GARATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Hobekuntza eta egokitzapen hidraulikoko obrak egitea, ibaiak husteko ahalmena handitzeko eta uholdeen altuera eta hedadura murrizteko. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteizko Udalak eta URA-Uraren Euskal Agentziak uholdeetatik babesteko obrak egiteko 2012an sinatu zuten lankidetzarako esparru-akordioaren bidez Zadorra ibaiaren eta Gasteiz hegoaldeko ibaien ertzetako ur-goraldiek behin eta berriz eragiten zituzten inpaktuak konpondu nahi ziren. Akordio hartan aurreikusitako jardueretatik gauzatzeke daude Gasteizko hirigunea Zadorra ibaiaren uholdeetatik babesteko obrak, Krispiñako ur-araztegiaren eta Gobeuko zubiaren arteko tartean (IV. fasea). |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| URAren esku jartzea Gasteizko hirigunea Zadorra ibaiaren uholdeetatik babesteko obrak egiteko behar diren lursailak, Krispiñako ur-araztegiaren eta Gobeuko zubiaren arteko tartean (IV. fasea). |
| Erakundearteko hitzarmen bat sinatzea, Gasteizko hirigunea Zadorra ibaiaren uholdeetatik babesteko obrak finantzatu eta gauzatzeko, Ihurre eta Abetxukuko zubien arteko tartean (III. fasea). |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Uholde-arriskua murriztea, klima-aldaketara egokitzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 13. HELBURUA: Klimaren aldeko ekintza<br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak |

# 2.7 konpromisoa.- GASTEIZKO AZPIEGITURA BERDEA GARATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Ingurugiro Gaietarako Ikastegia |
| **HELBURUAK** | Eraztun berdearen trazadura amaitzeko bidean aurrera egitea.<br><br>Azpiegitura berdea Eraztun Berdetik hirigunerantz barneratzea.<br><br>Azpiegitura berdea Eraztun Berdetik kanpoalderantz zabaltzea, dauden naturaguneekin lotuz. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Hiru espaziotan lan egin nahi da, betiere Gasteizko hiriko eta hiri-inguruko azpiegitura berdea garatzeko, hiriko Eraztun Berdea ardatz hartuta. Hori oinarritzat hartuz, hiri-azpiegitura berdea hiriaren barrurantz handitzeko lan egingo da: berdeguneak sortuko dira, klima-aldaketa arintzen eta horretara egokitzen lagunduko duten proiektuak garatzeko, eta $CO_2$ xurgatzeko eremuak, aldi berean, bero-boladetan klima-babeslekuak izango direnak.<br><br>Eraztun Berdeari dagokionez, lehentasuna izango du Larragorri parkea izango denaren garapena suspertzea, garai bateko Lasarteko legar-hobien degradazioa konpontzeko urratsak emanez, eremu hori Eraztun Berdean txertatzeko, horrela ia guztiz osatuko bailitzateke haren trazadura zirkularra. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Larragorrirako alternatibak aztertzeko oinarrizko lizitazioak (oinarrizko proiektua, ikerketak). |
| Hiriko zuhaitzen programa. |
| Eskolako jolastokiak birnaturalizatzeko programa. |
| Larragorri leheneratzeko xehetasun-proiektua. |
| Birnaturalizatzeko esku-hartzeak hiri-eremuan. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea. |
| Hiri-eremua klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea. |
| Erabilera publikorako berdegune berriak sortzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea<br><br>6. HELBURUA: Ur garbia eta saneamendua<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>13. HELBURUA: Klimaren aldeko ekintza<br><br>15. HELBURUA: Lehorreko bizitza |

## 2.8 konpromisoa.-ERAZTUN BERDEAREN GARAPENAREKIN JARRAITZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Ingurune naturalarekiko eta hiri-sarearekiko jarraitutasun ekologikoa eta konektibitatea hobetzea, korridoreen, ibai-sareen edo Eraztun Berdeko kultura-ibilbideen bidez.<br><br>Olarizuko lorategi botanikoaren proiektua garatzea.<br><br>Olarizuko lorategi botanikoa baliabide fitogenetikoak kontserbatzeko erreferentziako zentro izenda dezaten lortzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteizko 2030 Hiri Agendako 3. erronka estrategikoaren barruan ("Gasteiz berdea, klimaren aldetik neutroa, erresilientea eta beregaina"), 33. ekintza ("Eraztun berdearen garapena") proposatzen da, eta horrek, era berean, Olarizuko lorategi botanikoaren garapena jasotzen du. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Zadorra ibaiaren ezkerreko ertzean bide bat eraikitzea, Gamarrako igerilekuen parean.<br><br>Ibaiara doan zerbitzu-bidearen gainean pasabide bat eraikitzea.<br><br>Pasabide bat eraikitzea Gometxara doan zerbitzu-bidearen gainean eta bertatik Armentiako parkeraino eramango lukeen bidearen gainean.<br><br>Arkaia eta Elorriaga arteko ibilbidean paisaia egokitzea eta bide-zoruak hobetzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Eraztun Berdea baliabide baliotsua da herritarren osasunerako eta ongizate orokorrerako. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA Osasuna eta ongizatea<br><br>13. HELBURUA Klimaren aldeko ekintza<br><br>15. HELBURUA Lehorreko bizitza |

## 2.9 konpromisoa.- ERAZTUN URDINA SORTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Beatriz Artolazabal |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak<br>Laguntzailea: Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI) |
| **HELBURUAK** | Gamarra-Aztegieta ardatzaren berreskuratze naturala.<br><br>Azpiegitura eta zerbitzuak hobetzea: bideak, argiak, hiri-altzariak…<br><br>Aisialdi-, kirol- eta kultura-elementuak batzea, herritarrei gune erakargarri bat eskaintzeko Gasteizko ibai nagusian. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Azken urteotan, uholdeen aurkako esku-hartzeak egiten ari dira Zadorraren inguruan, eta horrek kalitate eta herritarrentzako erakargarritasun handiagoa ematen die sareari, ibiltokiak eta bideak berreskuratuko baitira.<br><br>Konpromisoaren helburua da ingurune hori guztia herritarren aisiarako eta gozamenerako elementu multzo batez hornitzea, ingurumenarekiko errespetutik abiatuta.<br><br>Kirola egiteko edo kulturaz, musikaz edo gastronomiaz gozatzeko elementuak. Horrekin guztiarekin lortu nahi da hiria berriro Zadorrari begira jartzea, naturagune erakargarri eta gozagarri gisa. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Herritarrek parte hartzeko prozesua eta proiektua idazteko baldintza-agiria lantzea. Ideia lehiaketa? |
| Proiektuaren esleipena. |
| “Eraztun urdina” proiektua lantzea. |
| Obren hasiera. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Aisialdirako eta gozamenerako espazio berri bat hiriaren iparraldean, ibaiaren inguruan. |
| Ingurunearen hiri- eta -izadi-berreskurapena. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 6. HELBURUA. Ur garbia eta saneamendua<br><br>6.6 Hemendik 2030era urarekin lotutako ekosistemak babestea eta leheneratzea, baso, mendi, hezegune, ibai, akuifero eta lakuak barne. |

# 2.10 konpromisoa.- BIODIBERTSITATEAREN KONTSERBAZIOA SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Gasteizko udalerriko Biodibertsitatea Kontserbatzeko Estrategia onetsi zuen 2015eko otsailaren 13an Tokiko Gobernu Batzarrak; honela labur dezakegu Estrategiaren helburu nagusia: “Biodibertsitatearen galera geldiarazteko behar diren neurriak ezartzea, eta hamar urteko epean udalerriko habitat eta espezieen kontserbazio-maila egokia lortzea, horiek gizartearentzat dituzten balio eta funtzioen aitorpena sustatuz”. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteizko udalerriko Biodibertsitatea Kontserbatzeko Estrategian hainbat konpromiso eta jarduera jasotzen dira, Estrategia onetsi eta 10 urteko epean gauzatu beharrekoak. Bestalde, berrikusi egin behar da agiria, 2025-2035 aldiari begira. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Udalerrian mehatxu-egoeran dauden espezieei buruzko tokiko ekintza-planak idaztea.<br><br>Espezie Exotiko Inbaditzaileei buruzko Udal Plana idaztea.<br><br>Salburuko hezeguneetan sartzen diren gainazal-uren kalitatea hobetzeko jardutea.<br><br>Gure inguruan desagerrarazitako hezeguneen leheneratzeko lanak sustatzea eta hezegune berriak sortzea.<br><br>Hiri-biodibertsitatearen aldeko jarduerak gauzatzea.<br><br>Gasteizko udalerriko Biodibertsitatea Kontserbatzeko Estrategia zuzenean kudeatzen eta 2025-2035 aldirako berrikusten diharduten lantaldea sendotzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Biodibertsitatearen kontserbazioa. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 15. HELBURUA: Lehorreko bizitza |

# 2.11 konpromisoa.- GASTEIZKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ESTRATEGIA SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodriguez Ramajo |
| **SAILA** | Ingurugiro Gaietarako Ikastegia |
| **HELBURUAK** | Lurraldeari lotutako nekazaritzako elikadura sistema baten garapena sustatzea, tokiko produktu freskoen ekoizpena, merkaturatzea eta salmenta areagotuko duena, nekazaritza birsortzailean oinarritutako laborantzaren bitartez.<br><br>Hiriko karbono-aztarna murriztea eta nekazaritza-sistemei lotutako lurzoruen zein biodibertsitatearen osasuna hobetzea. Ildo horretan, nabarmentzekoa da berehala abiaraziko den CROPS4LIFE proiektua, Europako LIFE programak finantzatu eta IGIk koordinatuta. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | CROPS4LIFE akronimoarekin identifikatutako LIFE proiektua koordinatuko du IGIk. Proiektu horrek 7 bazkide ditu, eta haren helburua da Gasteizerako Lurraldeari lotutako nekazaritzako elikadura sistema baten garapena diseinatzea eta probatzea, produktu fresko zein tokikoen ekoizpena, merkaturatzea eta salmenta areagotzeko, nekazaritza birsortzailean oinarritutako laborantzaren bitartez. Gutxienez 2 proiektu piloturen bidez garatuko da, BASALDEAn batetik, eta Monasteriogurenen bestetik, lursail pribatuetan. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| CROPS4LIFE proiektuaren garapena. |
| Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia idazten hastea. |
| Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia idazten amaitzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea. |
| Tokiko produktu freskoen eskuragarritasuna aregotzea. |
| Baldintza ekonomiko eta sozial jasangarriak errespetatuko dituzten jarduera ekonomikoak eta enplegua sortzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea.<br><br>9. HELBURUA: Industria, berrikuntza eta eta azpiegitura.<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>12. HELBURUA: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak..<br><br>13. HELBURUA: Klimaren aldeko ekintza. |

# 2.12 konpromisoa.- HERRITARRAK INGURUMEN-SENTSIBILIZAZIOAREN INGURUAN AKTIBATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodriguez Ramajo |
| **SAILA** | Ingurugiro Gaietarako Ikastegia |
| **HELBURUAK** | Klimaren Aldeko ekintzan herritarrak are gehiago aktibatzeko asmodun jardueretan sakontzea.<br><br>Eraztun berdearen ingurumen-ekipamenduak (instalazioak eta jardueren plangintza) gainbegiratzea.<br><br>Olarizuko Lorategi Botanikoaren Plan Zuzentzailea garatzea.<br><br>Herritarrak aktibatzeko planak garatzea, EAEko zein nazioarteko udal-entitate eta bestelako erakundeekin lankidetzan. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Herritarrak aktibatzearen asmoa klimaren aldeko ekintzaren esparruan herritarrak gehiago sentsibilizatzeko asmodun jardueretan sakontzea da, kausa eta ondorioetan lan eginez, bai eta Gasteizen klima-aldaketak biodibertsitatean, lurraldean zein auzi sozioekonomikoetan izan ditzakeen ondorioen inguruan (eta horietara egokitzapenean) egin dezakeenaren ezagutza sustatzea ere. Horrez gain, arlo psikosoziala ere arituko gara: trantsizio eko-sozialeko prozesuak, ingurumen-psikologia. Konpromisoak berebiziko eragina izango du eskola-eremuan zentratutako ingurumen-hezkuntzako jardueren programazioan eta jarraipenean. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Olarizuko Plan Zuzentzailea amaitzea. |
| LIFE URBAN KLIMA2050 programan parte hartzea. |
| HORIZON BIOTRACES programan parte hartzea. |
| Eskolako Agenda 2030 babestea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Ingurumen-ezagutza eta -hezkuntza aktibatzea. |
| Aisialdi- eta hezkuntza-instalazioak izate, dela aire zabalean (Eraztun berdeko parkeak eta gainerako espazioak) zein leku estalpean (ingurumen-ekipamenduak). |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea.<br><br>4. HELBURUA: Kalitatezko hezkuntza<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>13. HELBURUA: Klimaren aldeko ekintza.<br><br>15. HELBURUA: Lehorreko bizitza |

# 2.13 konpromisoa.- HAPO BERRIAREN ONESPENA AMAITZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodriguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Hiri trinko eta kohesionatua sustatzea.<br><br>Landa-ingurunea sustatzea eta bertako herriak babestea.<br><br>Natura-, kultura- eta paisaia-ondareari merezi duten balioa ematea.<br><br>Jasangarraitasunaren irizpideen arabera moldatuko den lurraldea osatzea, eta ikuspegi energetikotik eraginkorra.<br><br>Lurraldearen oreka ekonomikoa sustatzea.<br><br>Pertsonek egindako eta pertsonentzako lurralde baten alde lan egitea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | HAPO berrikusteko prozesua amaitzea, izapidetzea Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2023ko otsailean emandako hasierako onespenetik aurrera bultzatuz. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Alegazioen txostena eta horiek ebazteko Osoko Bilkura. |
| Behin-behineko onespena. |
| Behin betiko onespena ematea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Eskakizun eta helburu berrietara egokitutako udal-antolamendua prestatzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>11.3 Urbanizatze inklusiboa eta iraunkorra areagotzea, baita giza kokaguneen plangintza eta kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta iraunkorra bideratzeko gaitasuna ere, herrialde guztietan. |

# 2.14 konpromisoa.- HIRI-BIRGAITZEA ETA -BERRONERATZEA SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodriguez Ramajo |
| **SAILA** | Ensanche 21 Zabalgunea S.L. |
| **HELBURUAK** | Birgaitzeko laguntzak edo dirulaguntzak izapidetzea.<br><br>Hirigintza egikaritzaren alorrean egin beharrekoak gauzatzea.<br><br>Eraikin eta etxebizitzak birgaitzea.<br><br>Etxebizitzen merkatuan esku hartzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Birgaitzeko laguntzen ordenantza-proiektu bat sustatuko da, E21 sozietateari laguntzak modu autonomoan izapidetzeko esparru juridiko bat emango diona.<br><br>Udalak artean jaso ez dituen obren sektoreak garatu eta egikaritze-unitate publikoetan lagundu nahi dugu, hirigintza-antolamendua kudeatzeko eta gauzatzeko udal-tresna gisa.<br><br>Eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea, partikularrak zein Udalarenak, alokairu babestuko programetan baliatzeko, edo udal-zerbitzuek erabil ditzaten.<br><br>Enerpat, Agree eta 100 hirien misioan proiektuen aurreikuspenak gauzatuko dira.<br><br>Etxebizitzen merkatuan eragingo dugu, orubeen merkatuan esku hartzen duten eragileen eskura jarrita. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Bigaitzeko Obreai buruzko Udal Ordenantza onestea. |
| BIPB 11ko Konpentsazio Batzordearen likidazioa. |
| Urtean 2-3 etxebizitza birgaitzea eta gizarte-zerbitzuen esku uztea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Birgaitzeko laguntzak izapidetzeko eta ordaintzeko prozesuak bizkortzea. |
| Udal Plangintzaren aurreikuspenak gauzatzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>11.3 hirigintza inklusiboa eta jasangarria areagotzea, eta baita giza kokaguneen kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria ere, herrialde guztietan. |

# 2.15 konpromisoa.- MUGIKORTASUN-AGENTEEN KIDEGOA SORTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **DEPARTAMENTO** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Bide-segurtasuna hobetzea, oinezkoei zein gainerako garraiobideei.<br><br>Zenbait puntu eta une jakinetan trafikoa arintzea…<br><br>Mugikortasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen laguntzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Mugikortasun seguruaren aldeko apustua egiten dugu; horrenbestez, mugikortasun-agenteen zerbitzu berri bat jarriko dugu abian. Mugikortasun-agente horien eginkizun nagusia pertsonen segurtasuna eta zirkulazio arina bermatzea izango da:<br><br>- Oinezkoentzako guneak kontrolatuko dituzte.<br>- Eskola-inguruneetan oinezkoen segurtasuna hobetuko dute.<br>- zirkulazioa kudeatuko dute, beharrezko leku eta uneetan.<br><br>50 agentek osatuko dute kidego berria, Mugikortasunaren Saileko langileak. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Kidego berriaren eredua, funtzioak eta egitura definitzea. |
| Kidego berria udal-organigraman txertatzea. |
| Mugikortasun-agenteen talde berria pixkanaka abian jartzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Pertsonen segurtasuna hobetuko da eta zirkulazioa arinagoa izango da hirian. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>11.6 Hemendik 2030era, murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa, eta arreta berezia eskaintzea airearen kalitateari eta udal-hondakinen eta beste hondakin batzuen kudeaketari.<br><br>11.7 Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat. |

# 2.16 konpromisoa.-MUGIKORTASUN IRAUNGARRIA BULTZATZEA, KUTSADURA ATMOSFERIKOA ARINTZEKO NEURRI GISA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodriguez Ramajo |
| **SAILA** | Ingurugiro Gaietarako Ikastegia |
| **HELBURUAK** | Iraungarritasunaren irizpideen araberako garraiobideen erabilera areagotzea, ehunekotan neurtuta, pertsonen zein salgaien garraioan.<br><br>Gasteizen aireko kutsatzaileen kopurua murriztea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Garraioa da gure hirian berotegi-efektuko gas gehien isurtzen dituen sektoreetako bat. Irizpide jasangarrien araberako garraioa bultzatzea faktore erabakigarria da berotegi-efektuko gasen eragina arindu eta kutsadura atmosferikoa murrizteko, bai eta herritarren osasun- eta ongizate-iturri ere.<br><br>Konpromiso horrek plan hauetako zenbait proposamenetatik edaten du: Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana (MIEPP), Klima eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Plana (PACES) eta Hiriaren Klima Kontratua, zein Gasteizko Udalak Europako Misioekin dugun loturaren esparruan sinatu baitu. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| 2021-2025 aldirako Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana garatzea, eta hurrengo plana (2026-2030 aldirakoa) osatzeko parte hartzea. |
| Mugikortasun aktiboaren aldeko politikak babestea, Ziklisten Mugikortasunaren Gida-plan berri bat eginez. |
| Hiri-Logistika Iraunkorreko Plan bat egitea, MIEPPen eta PACESen osagarri. |
| Eskola-bide seguruak sustatzeko eta garatzeko programa. |
| Industrialdeetarako mugikortasuna hobetzeko ekintza-plana garatzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Berotegi-efektuko gasen eta aireko kutsatzaileen (partikula eta gas kutsatzaileak) emisioak murriztea. |
| Hirian zarata-maila murriztea. |
| Osasun- eta ongizate-maila handiagoak herritarrentzat. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea.<br>4. HELBURUA: Kalitatezko hezkuntza<br>7. HELBURUA: Energia eskuragarria eta ez-kutsakorra<br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br>13. HELBURUA: Klimaren aldeko ekintza. |

## 2.17 konpromisoa.-ISURI GUTXIKO EREMUA EZARTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren 7/2021 Legea betetzea, hirietan isuri gutxiko eremu bat ezartzeko betebeharra ezartzen baitu.<br><br>Aukeratutako eremuko airearen kalitatea hobetzea eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Hauxe dio Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren 7/2021 Legearen 14.3 artikuluak: “Isuri gutxiko eremutzat jotzen da administrazio publiko batek, bere eskumenak baliatuta, bere lurraldearen barruan mugatutako eremua, non ibilgailuak sartzeko, zirkulatzeko eta aparkatzeko murrizketak ezartzen baitira airearen kalitatea hobetzeko eta berotegi-efektuko gasen isuriak arintzeko, indarrean den Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrak ezarritakoarekin bat egindako sailkapena — ibilgailuak isuriaren arabera sailkatzeko— aintzat hartuta”.<br>Horrenbestez, Gasteizko Udalak, lege hori betez, Erdi Aroko hirigunean ezarriko du isuri gutxiko eremu hori, eta hura ezartzeko eta kudeatzeko behar den azpiegitura abian jarri ahal izango du. Eremu horretako gizarte-, ekonomia- eta auzo-eragileek parte hartuko dute eremua ezartzeko prozesuan. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Proposamen-proiektua egitea. |
| Kontrastea eta parte-hartze soziala. |
| Kudeaketa-azpiegitura ezartzeko kontratuaren lizitazioa. |
| Proiektua abian jartzea eta jarraipena egitea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Isuri gutxiko eremua ezartzearen helburua inguruko herritarren eta, oro har, hiri osoaren airearen kalitatea hobetzea da, neurri horrek trafikoa eta horren ondoriozko kutsadura murrizten baititu. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>11.6 Hemendik 2030era, murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa.<br><br>11.7 Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat. |

# 2.18 konpromisoa.- HIRIAREN HEGOALDEAN EKIALDE-MENDEBALDE KONEXIOA AZTERTZEKO LANTALDEA SORTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Hiriaren hegoaldean trafikoa hobetzeko aukerak aztertzea.<br><br>Eraztun berdean eraginik izango ez duten bide-alternatibak baloratzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Hiriaren hegoaldean trafikoaren hazkuntza sumatzen da, bada denboratxo bat hori sumatzen hasi zenetik. Gainera, herritarrak konponbide bat eskatzen dute Esmaltaciones-Armentia ardatzean eguneko une jakin batzuetan gertatzen den trafiko-dentsitatearen aurrean.<br><br>Konpromiso honen helburua udal-talde guztiekin eta aholkulari teknikoen laguntzarekin azterketa-talde bat abiaraztea da, bertan hainbat aukera aztertzeko, eta auziari konponbidea emateko.<br><br>Konponbide adostua eta bideragarria, natura-gune kontsolidatuak (esaterako, Olarizuko parkea) errespetatuko dituena. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Lantaldea sortzea. |
| Lan-bilerak. |
| Ondorioak eta jarduteko proposamena. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Lan horren bidez konponbidea eman nahi zaio hiriaren hegoaldeko trafikoari, inguru horretako gidariak kexu baitira. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak. Hiriak inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak izan daitezen lortzea. |

# 2.19 konpromisoa.- TRANBIA ZABALGANARA ERAMATEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Beatriz Artolazabal |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak.<br>Laguntzaile: Hiri Eredua (hirigintza) eta Segurtasuna (trafikoa). |
| **HELBURUAK** | - Hiriko tranbia-sarea hobetzea eta, hartara, Gasteizko garraio publikoa sendotzea.<br>- Hiriko auzorik jendetsuena erdigunearekin eta gainerako tranbia-sareekin lotzea.<br>- Mugikortasun iraungarritasunaren irizpideetara lerrokatzen laguntzea, hiriko joan-etorriak deskarbonizatuz.<br>- Hiri-ingurunea hobetzea adar berriak hartuko dituen inguruetan. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Eusko Jaurlaritzaren ETSk (Eusko Trenbide Sarea) bultzatutako proiektua da, zein tranbia-sarea planifikatzeaz eta adar berriko obrak egiteaz arduratzen da.<br><br>Datozen urteetan, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jardungo du Udalak, adar berria ezartzeko eta hirira egokitzeko, TUVISAko trafikoarekin eta garraio publikoarekin harmonizatzeko, bai eta zeharkatzen dituen kale eta inguruetako hiri-ingurunea egokitzeko ere. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Herritarrei proiektuaren berri ematea eta proiektua idazteko baldintza-agiriak osatzea. |
| Obrak esleitzea. |
| Adar berriaren proiektua gauzatzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Proiektuak hiriaren garraio publikoaren eskaintza hobetuko du, Zabalgana auzoa erdigunearekin eta tranbiaren gainerako adarrekin modu eraginkor eta iraungarrian lotuko duen adar berri baten bidez. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br>11.6 Hemendik 2030era, murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa.<br>11.2 Hemendik 2030era, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea. |

# 2.20 konpromisoa.- ESKOLA-INGURUNE SEGURUEN PROIEKTUA HEDATZEA ETA SENDOTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Seguridad. Servicio de Tráfico |
| **HELBURUAK** | Eskola-inguruneetan adingabeen segurtasuna hobetzea.<br><br>Inguru horietan trafikoa baretzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Azken urteotan eskola-inguruneak hobetzeko eta ingurune horietan trafikoa baretzeko neurriak jarri dira abian. Dagoeneko 15 ikastetxetan jarri da abian ekimenen bat, eta hobekuntzak egiten jarraituko dugu hiriko zentro horietan eta beste batzuetan, betiere zentroek halakorik eskatzen badute.<br><br>Jarduera guztiak ikastetxeekin lankidetzan egiten dira, zein ikastetxeetako zuzendaritzen eta guraso-elkarteen bitartez arituko baitira. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Proiektuari atxikitako ikastetxeetan hobekuntza-neurriak ezartzea. |
| Ikastetxe bakoitzean hobekuntza-obrak lizitatzea. |
| Obrak egitea eta emaitzen jarraipena egitea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Ekimen honen bidez nabarmen hobetuko da eskola-inguruneetako segurtasuna, baita airearen kalitatea ere, inguru horietako trafikoa eta auto-pilaketa murriztuko baitira. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HEKLBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>11.6 Hemendik 2030era, murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa, eta arreta berezia eskaintzea airearen kalitateari eta udal-hondakinen eta beste hondakin batzuen kudeaketari.<br><br>11.7 Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat. |

# 2.21 konpromisoa.- BEI SISTEMAN HOBEKUNTZA GEHIAGO EGITEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | BEI izeneko garraio publikoko sistema berria sendotzea.<br><br>Trafikoa arintzea eta oinezkoen segurtasuna hobetzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Proiektuak Mendizorrotzeko eta Esmaltacioneseko biribilguneen artean BEIrentzat errei bakarra egitea planteatzen du.<br><br>Neurri horren bidez, Mendizorrotzeko eta Esmaltacioneseko biribilguneen artean ibilgailuen trafikoari zuzeneko jarraitutasuna lortuko dugu, BEIren funtzionamenduari ezertan eragin gabe.<br><br>Gainera, horri esker, bizikleta-errei bat irabazi ahal izango dugu Salbaterrabide kalean, Araba kalekoarekin lotuko duen 500 metroko bidegorri berri bat.<br><br>Abendaño ikastolaren inguruan ere beste esku-hartze bat aurreikusten dugu. BEIren zati horrek bi errei ditu orain, baina errei bakarreko bihurtuko litzateke. Trafikoa arindu egingo litzateke, eta Mexiko kaletik igaro beharra ekidingo litzateke, hartara ikastolako bide-segurtasuna nabarmen hobetuz. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Esku-hartzearen proiektua idazteko baldintza-orriak prestatzea. |
| Hobekuntza-obrak kontratatzea eta emaitzen jarraipena egitea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Esku-hartze honi esker, BEI sistemaren zerbitzuaren kalitateari eutsiko zaio, eta, horrekin batera, hegoaldeko trafikoa arindu egingo da, eta bidegorri berri bat irabaziko da.<br><br>Gainera, nabarmen hobetuko da Abendaño ikastolaren inguruko segurtasuna, eta ikastolaren aurretik ibilgailu-kopuru handia igaro beharra saihestuko da. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>11.6 Hemendik 2030era, murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa.<br><br>11.2 Hemendik 2030era, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea. |

# 2.22 konpromisoa.- TUVISAKO FLOTA BERRITZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Udalaren garraio publikoko flota modernizatzea.<br><br>Hiriko mugikortasunaren deskarbonizazioa sustatzea, eta, hartara, airearen kalitatea hobetzen eta CO2 emisioak murrizten laguntzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | TUVISAren flota elektrifikatu eta berritzeko prozesuak beste mugarri bat izango du epe ertainean, zero emisioko hamar ibilgailu berri jarriko dira kalean.<br><br>Proiektu honen bitartez, autobusak erosteko formula berriak aztertuko ditugu agintaldi honetan, flotaren batez besteko adina are gehiago hobetzeko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| 10 autobus berri erosteko baldintza-orriak osatzea. |
| Unitate berriak lizitatu eta erostea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Herritarrek garraio publikoko zerbitzu hobea izango dute, autobus modernoago eta erosoagoak.<br><br>Gainera, eta, horren ondorioz, nabarmen hobetuko da hiriko airearen kalitatea, eta nabarmen murriztuko CO2 isuriak. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>11.6 Hemendik 2030era, murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa.<br><br>11.2 Hemendik 2030era, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea. |

# 2.23 konpromisoa.- TUVISAKO KOTXETEGEN 3. FASEA ERAIKITZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Iñaki Gurtubai Artetxe |
| **SAILA** | Segurtasuna. Trafiko Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Udalaren garraio-zerbitzuaren instalazioak modernizatzea.<br><br>Autobus-flota deskarbonizatzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | TUVISAren kotxetegi berrien 1. eta 2. faseetan inauguratu dira dagoeneko; hirugarren eta azken fasearekin amaituko dira obak.<br><br>Obra horri esker, Agirrelandako bulegoak eta bertan ematen diren zerbitzu guztiak instalazio berri, modernoago, jasangarriago eta prestatuagoetara eraman ahal izango dira, autobus-flota moderno eta elektrifikatu bati zerbitzu emateko behar den azpiegitura osoarekin. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Obrak kontratatzeko baldintza-agiriak osatzea. |
| Esleipena eta jarraipena. |
| Kotxetegi berrien instalazio guztiak abian jartzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Proiektuak garraio publikoaren zerbitzua hobetzen lagunduko du; izan ere, kotxetegi berriak ezinbestekoak dira flota berritzen eta elektrifikatzen jarraitzeko, egungo instalazioek ez baitituzte horretarako behar diren baldintzak betetzen. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>11.6 Hemendik 2030era, murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa.<br><br>11.2 Hemendik 2030era, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea. |

| ARDATZA | LAN-ESPARRUAK | KONPROMISOAK |
|---|---|---|
|  3 HIRI LEHIAKORRA | Garapen ekonomikoa eta kalitateko enplegua | Industriari laguntzeko III. plana lantzea |
| | | Enpleguaren kalitatea hobetzea eta laneratzea sustatzea |
| | | Langabezia prebenitzea eta Enplegagarritasuna handitzea |
| | Ekintzailetza eta berrikuntza | Ekintzailetza indartzea |
| | | Turismoaren Gida Plana garatzea |
| | | Merkataritza-sektorean lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzea |
| | | Enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza bultzatzea |
| | | Merkataritza- eta ostalaritza- jarduera sustatzea |
| | | Gasteizko zirkulartasun-estrategia bultzatzea |

# 3. ardatza: Hiri lehiakorra

Gasteizek DNA industrial indartsua du eta horri eutsi nahi diogu, eta eboluzionarazi, mugikortasunean eta industria berdean ere erreferente izateko. Azken urteotan, oso urrats garrantzitsuak eman ditugu aireportua bidaiarien trafikorako sustatuz, abiadura handiko trena lurpetik iristea adostuz edo Jundizko plataforma intermodalaren garapena bultzatuz.

Orain, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren onarpena amaitu behar da. Plan hori funtsezkoa da industria-garapenerako, bai eta hiriaren hazkunde ordenatu eta iraunkorrerako ere.

Hiri lehiakor, bizi eta aukerez ari bagara, ekintzailetza eta berrikuntza bultzatu behar ditugu; tokiko merkataritzaren alde egin behar dugu, kalitatea eta hurbileko tratua eskaintzen baititu. Era berean, 2050ean klima-neutraltasuna lortzera bideratutako ekoizpen-ereduetarako trantsizioan lagundu behar diegu gure enpresa txiki eta ertainei.

Hiri lehiakorra nahi dugu, industria indartsuarekin eta tokiko merkataritza biziarekin, talentua erakartzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasuna duena.

## 3.1 konpromisoa. INDUSTRIARI LAGUNTZEKO III PLANA LANTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | María Nanclares |
| **SAILA** | Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
| **HELBURUAK** | Industria-hirigintza indartzea lehiakortasun-faktore gisa.<br><br>Tokiko industriaren dibertsifikazio sektoriala bultzatzea.<br><br>Gasteiz hiriaren izaera industrialari eustea.<br><br>Industria Plana (2021-2024) gauzatzea.<br><br>Industria Plan berria (2025-2029) idaztea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Erabiltzen ez den lurzoru produktiboa aktibatzen laguntzea.<br><br>Tokiko industrian zibersegurtasuna sustatzea. Industrialdeen kudeaketa integralerako sistema informatizatua sortzea.<br><br>Gobernantza-sistema berritzaile bat sortzea industrialdeetarako.<br><br>Industria-jarduera berriak ezartzen laguntzea, sozietate publikoetan parte hartuz, hala nola GILSA eta Arabako Teknologia Parkea. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Industriari Laguntzeko Plan berria (2025-2028) idaztea. |
| Industria-sektorean sortutako enplegua. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Udalerriko ekonomia sustatzea, kalitateko enpleguaren bidez. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 8. HELBURUA: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.<br><br>9. HELBURUA: Industria, berrikuntza eta azpiegitura.<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>12. HELBURUA: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantza. |

## 3.2 konpromisoa. LANERATZEA SUSTATZEA ETA ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | María Nanclares |
| **SAILA** | Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
| **HELBURUAK** | Kalitateko enplegua sustatzea prekarietateari eta behin-behinekotasunari dagokienez ahulenak diren kolektiboetan, enplegua sustatzeko plan espezifikoen eta kontratazio publikoa kontuan hartzen duten proiektuen bidez.<br><br>Enpresetan enplegu-sorkuntza sustatzea, udalerriko enpresei zuzendutako kontratazioko laguntza-deialdien bidez.<br><br>Etengabeko prestakuntza bultzatzea, pertsonak gaitu edo birkualifikatzeko, lan-merkatuaren eskarietara benetan egokitu ahal izan daitezen. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Eskualdeko enplegu planak, esklusiboki kontratazioko.<br><br>30 urtetik beherako gazteei zuzendutako enplegu-planak edo enplegu- eta prestakuntza-planak.<br><br>Enpresentzako laguntzen deialdiak.<br><br>Etengabeko prestakuntzako ekintzak.<br><br>Hitzarmenak: Arabako Merkataritza Eskola, EHU (Master Digitala).<br><br>Udalaren lan-bitartekaritzako ekintzak eta/edo beste erakunde batzuekin lankidetzan egindakoak. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Eskualdeko planen eta gazteen enplegurako programen deialdiak egitea. |
| Hiriko ikastetxeekiko lankidetza eta eragile eta erakundeekin sinatutako hitzarmenak urtez urte berritzea. |
| Prestakuntza planak. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Pertsonak prestatzeko eta gizarteratu eta laneratzeko aukerak sortzea, haien bizi-proiektuaren garapena ahalbidetuz. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 4. HELBURUA: Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.<br><br>5. HELBURUA: Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.<br><br>8. HELBURUA: Guztiontzako hazkunde jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.<br><br>10. HELBURUA: Herrialdeetako eta herrialdeen arteko berdintasun eza murriztea<br><br>17. HELBURUA: Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea. |

# 3.3. konpromisoa. LANGABEZI PREBENITZEA ETA ENPLEGAGARRITASUNA HANDITZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | María Nanclares |
| **SAILA** | Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
| **HELBURUAK** | Kalitateko lana, inklusiboa eta berdinzalea sortuko duten enplegu-politika aktiboak garatzea, beste erakunde batzuekin koordinatuta.<br><br>Bazterketa-arriskuan eta/edo enplegagarritasun-maila txikia duten kolektiboen lan-merkaturako trantsizioa egitea, hainbat baliabide konbinatuz, azkenean "ibilbide integratu indibidualizatuak" osatzeko.<br><br>Esku-hartze horietan EBk bere "Gaitasunen Europako Agendan" gomendatutako ikuspegia txertatzea, esku-hartzearen fokua lanbide-gaitasunetara ez ezik, balioetara, jarrera pertsonaletara, konpetentzia gako eta digitaletara eta abarretara ere zabalduz. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Enplegurako lanbide-orientazioa (banaka, taldean eta Enplegu Zentroan).<br><br>Enplegurako lanbide-prestakuntza eta autoprestakuntza.<br><br>Hitzarmenak: Secretariado General Gitano, Prestaturik eta SEA.<br><br>Jarduera horietako batzuk Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan egiten dira, zentro homologatu gisa. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Logistikan prestatzeko biltegia garatzea. |
| OIKOS proiektua garatzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Pertsonak prestatzeko eta gizarteratu eta laneratzeko aukerak sortzea, haien bizi-proiektuaren garapena ahalbidetuz. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 4. HELBURUA: Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.<br><br>5. HELBURUA: Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.<br><br>8. HELBURUA: Guztiontzako hazkunde jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.<br><br>10. HELBURUA: Herrialdeetako eta herrialdeen arteko berdintasun eza murriztea<br><br>17. HELBURUA: Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea. |

# 3.4 konpromisoa. EKINTZAILETZA INDARTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | María Nanclares |
| **SAILA** | Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
| **HELBURUAK** | Ekintzailetza-ekosistemak sortzea ekintzailetza-potentzial handiko sektoreetan.<br><br>Tokiko ekintzaileei lagun egiteko sistema eraginkorra bermatzea.<br><br>Ekintzailetza bultzatzeko udal-gobernantza sortzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | 1) Ekintzailetza-eredu espezifikoak bultzatzea.<br>2) Gasteiz ekintzailetzarako ekosistema erakargarri eta dinamiko gisa kokatzea.<br>3) BASALDEA: ekintzailetza agroekologikoa.<br>4) Circular HUB ekintzailea.<br>5) URBAN LAB/Ekobarruti ekintzailea.<br>6) Ekintzaileei laguntzeko programak indartzea.<br>7) Enpresa-zentro irekia.<br>8) Ekintzailetza bultzatzeko udal-sailen arteko lan-prozesua bultzatzea.<br>9) Enpresa-jarduera berritzaileak ezartzen laguntzea, BIC Araban parte hartuz. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Enpresa-zentro irekia handitzea. |
| Ekintzailetza sektorialeko bi proiektu abiaraztea. |
| Autonomoentzako laguntza-ildo bat sortzea. |
| Ekintzaileei laguntzeko udal-prozesua sortzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Udalerrian bizi diren pertsonen bizi-proiektua garatzeko aukerak sortzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 8. HELBURUA: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.<br><br>9. HELBURUA: Industria, berrikuntza eta azpiegitura.<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>12. HELBURUA: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantza. |

# 3.5 konpromisoa.- TURISMOAREN GIDA PLANA GARATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | María Nanclares |
| **SAILA** | Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
| **HELBURUAK** | Tokiko turismoa garatu eta sendotzeko ikuspegi berria diseinatzea.<br><br>Baliabide turistikoen kopurua handitzea eta egungoak hobetzea.<br><br>Hiriko sektore turistikoaren eraldaketa digitala bultzatzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteizko Turismoaren Gida Plana.<br><br>Udalerriko turismo-baliabideak aztertzea eta egungoak hobetzea.<br><br>Hirian turismoak duen portaeraren neurketa, fluxuen kudeaketa eta analisia.<br><br>Turismo-informazioko tresna digitalak ezartzea.<br><br>Turismo-sektoreari laguntzea, plan eta laguntza zehatzen bidez. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Gida Planaren argitalpena. |
| Turismo-informazioko softwarea ezartzea. |
| Bisitarien/turisten azterketa. |
| Emandako laguntzak |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Udalerrian bizi diren pertsonen bizi-proiektua garatzeko aukerak sortzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 8. HELBURUA: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea. |

## 3.6 konpromisoa. MERKATARITZA-SEKTOREAN LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | María Nanclares |
| **SAILA** | Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
| **HELBURUAK** | Merkataritza- eta ostalaritza-sektorea profesionalizatzen jarraitzea, gaitasuna eta lehiakortasuna handitzeko tresnak eskainiz. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Merkataritza eta Ostalaritza Plan Estrategiko berria (2023-2026).<br><br>Urban Commerce. Merkataritza-sektorearen topagunea, 2006tik antolatzen dena, biltzar zein jardunaldi formatuan.<br><br>Merkataritza Mahaia: herritarren partaidetza-organoa da, eta, besteak beste, 2023-2026 aldirako Merkataritza eta Ostalaritza Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egitea du eginkizun. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Merkataritza eta Ostalaritza Plan Estrategikoa (2023-2026) aurkeztea. |
| Urban Commerce urteko foroa egitea. |
| Gogoeta- eta berrantolaketa-prozesu baten ondoren, Merkataritza Mahai berria abian jartzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Hiriko merkataritza-bizitza biziberritzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16.6 HELBURUA: Erakunde eraginkorrak eta gardenak.<br><br>9.5 HELBURUA: Ikerketa zientifikoa eta gaitasun teknologikoa areagotzea. |

# 3.7 konpromisoa. ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAN BERRIKUNTZA SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | María Nanclares |
| **SAILA** | Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
| **HELBURUAK** | Enpresa txiki eta ertainetan zibersegurtasuna sustatzea.<br><br>Enpresa txiki eta ertainetan digitalizazio prozesuak babestea.<br><br>Enpresa-berrikuntzaren prozesuei buruzko informazioa indartzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Industriako enpresa txiki eta ertainei aholkularitza zerbitzua eskaintzea. Zerbitzu horren helburu nagusia de enpresak kontzientziatzea zibersegurtasunaren arloan ohikoenak diren arriskuei buruz, baita neurriak aplika ditzatela sustatzea ere, arriskuak gutxitzeko.<br><br>Enpresekin modu proaktiboan lan egingo da, berrikuntza proiektuak diseinatzen eta aurkezten laguntzeko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| 10 langile baino gutxiagoko enpresek zibersegurtasun neurri gehiago har ditzatela lortzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Digitalizazioa euren negozio ereduetara egokitzen duten eta euren sektorean lehiakorrenak diren tokiko enpresekin kontatzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 8. HELBURUA: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.<br><br>9. HELBURUA: Industria, berrikuntza eta azpiegitura.<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantza. |

# 3.8 konpromisoa.- MERKATARITZA ETA OSTALARITZA JARDUERA SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | María Nanclares |
| **SAILA** | Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
| **HELBURUAK** | Egungo merkataritza- eta ostalaritza-egiturari eustea eta hori sendotzea, hurbileko kontsumoa hirian bizi diren pertsonen erreferente gisa kokatuz eta haren merkatu-zatian erakarpena berreskuratuz, jasangarritasun- eta lehiakortasun-esparru baten barruan.<br><br>Merkataritza- eta ostalaritza-establezimendu berrien ezarpena sustatzea, baita aurretik dauden negozioen modernizazioa eta eraberritzea ere.<br><br>Eraldaketa digitaleko prozesua bultzatzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen nahiz ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak.<br><br>Eraldaketa digitalerako laguntza ekonomikoak. Sortu berri diren proiektuen tutoretza. Negozio-ekimen berrien ezarpena bultzatzea.<br><br>Merkataritza-enpresei zuzendutako mintegi-proiektu bat aztertzea eta abian jartzea.<br><br>Merkataritza-sektorean adina kudeatzea. Belaunaldi-txandaketa bermatuta ez duten merkataritza-enpresen transmisioa erraztea. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Dirulaguntzak argitaratzea. |
| Laguntzak ebatzi eta ordaintzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Tokiko ekonomia garatzea eta enplegu-aukerak sortzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16.6 HELBURUA: Erakunde eraginkorrak eta gardenak.<br><br>8.3 HELBURUA: Enpresa txiki eta ertainak sustatzea |

# 3.8 konpromisoa.- MERKATARITZA ETA OSTALARITZA JARDUERA SUSTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saila, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailarekin eta IGIrekin batera |
| **HELBURUAK** | Gasteizen ekonomia zirkularra bultzatzea, bai administrazioan bertan, bai enpresa eta erakunde pribatuen eta herritarren artean.<br>Gasteizko Ekonomia Zirkularraren Estrategia eta haren ekintza-planak (2024-27 eta 2028-2030) onestea eta abian jartzea.<br>Kontsumo-eredu zirkularragoak sustatzea, herritarrentzako prestakuntza- eta informazio-programen bidez.<br>Enpresei ekonomia zirkularrera eraldatzen laguntzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Hiriko Ekonomia Zirkularraren Estrategiaren onespena gidatu eta koordinatzea, ekonomia linealetik ekonomia zirkularrera igarotzea bultzatzeko.<br><br>Konpromiso horren albo-onura nagusia da berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, lehengai gutxiago erabiltzen direlako eta ziklo laburreko merkataritza- eta industria-prozesuak lehenesten direlako.<br><br>Helburu eta mugarri nagusiak IGIren, Enpresa Zerbitzuaren, Jasangarritasun, Klima eta Energia Zerbitzuaren eta Hondakinen Atalaren baterako ekintzaren bidez bultzatuko dira.<br>Zeharkako estrategia bat da, udaleko arlo eta sail guztietan eragina duena. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Gasteizko 2030 Estrategia Zirkularra onestea. |
| Lehen ekintza-plana (2024-2027) onestea. |
| Lehen ekintza-planaren bitarteko jarraipena. |
| Lehen ekintza-planaren azken jarraipena egitea eta bigarren ekintza-plana abian jartzea (2028-2030). |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea. |
| Udalaren ekintza publikoaren kostuak murriztea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea.<br>6. HELBURUA Ur garbia eta saneamendua.<br>9. HELBURUA: Industria, berrikuntza eta eta azpiegitura.<br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br>12. HELBURUA: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak..<br>13. HELBURUA: Klimaren aldeko ekintza. |

| ARDATZA | LAN-ESPARRUAK | KONPROMISOAK |
|---|---|---|
|  4 HIRI AKTIBO ETA BIZIA  | Merkataritza-, kultura- eta kirol-jarduera | Merkataritza- eta ostalaritza-jarduera dinamizatzea |
| | | Merkataritza-lokalak dinamizatzeko plana diseinatzea |
| | | Kulturaren Plan Estrategikoa egitea |
| | | Principal antzokia eraberritzea |
| | | Udal Dantza Kontserbatorioaren migrazioa eta Udal Dantza Eskola sortzea |
| | | Montehermoso kulturunea sustatzea |
| | | Udal Artxiboaren balioa nabarmentzea |
| | | Iradier arenarako alternatiben azterketa |
| | | Herritar guztien hizkuntza-eskubideak sustatzea eta babestea |
| | | Hiriko kirol eskaintza handitzea |
| | | Kirol-instalazioak Hobetu eta Eguneratzeko plana osatzea |
| | Hiriaren dinamizazioa eta proiekzioa | Maturana-Verastegui Jauregia kontsolidatzea |
| | | Gasteiz hiri erreferente bihurtzea kirol-ekitaldien alorrean |
| | | Hiria dinamizatzen duten ekitaldiak bultzatzea |

# 4. ardatza: Hiri aktibo eta bizia

Daukagun hiriari balioa eman behar diogu; Gasteizi harrotasunez betetzen gaituen nortasun propioa ematen diote, besteak beste, bere industriak, berdeguneek, kulturak edo bizi-kalitate handiak.

Hiri horretaz gozatzen jarraitu nahi dugu, baina baita jarduera komertzial, kultural eta turistikoa bultzatu ere, erakargarriagoa izan dadin, gozatzeko jarduera eta espazio gehiago duena.

Kirolak, kulturak edo ekitaldiek bultzada eta sustapen gisa balioko digute. Ekipamendu ugari ditugu horretarako, baina, hala ere, beharrezkoa da espazioen eskaintza hobetzea eta sendotzea; hala nola, kulturalena, Principal antzokia eraberrituz eta Iradier Arenarako proiektu bat planteatuz.

Baina kultura ez dute soilik eraikinek osatzen. Egiten duguna eta egiten ari garena dinamizatu eta balioan jartzea ere eskatzen du. Horretarako, askotariko eta kalitatezko ekitaldien- eta turismo-eskaintza plazaratu behar diegu bisitariei eta gure hiriaren irudirik onena eramatea nahi dugun pertsonei.

# 4.1 konpromisoa.- MERKATARITZA ETA OSTALARITZA DINAMIZATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | María Nanclares |
| **SAILA** | Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
| **HELBURUAK** | Gasteizko merkataritza eta ostalaritza sustatzea, haien indarguneak ezagutaraziz eta sektorea dinamizatzeko eta hiriaren eskaria erakartzeko ekimenak eginez. Horrela, merkataritza- eta ostalaritza-hiri erakargarri eta aintzatetsiaren irudia sortuko da.<br><br>Merkataritza eta ostalaritza hiri-jasangarritasunari laguntzen dioten eragile gisa sentsibilizatzea.<br><br>Asoziazionismoa sustatzea, sektoreko elkarteekin lankidetza-hitzarmenak eginez, haien dinamizazio-ekintzak bultzatzeko. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Eguberrietako argiztapena.<br><br>Merkataritza-establezimenduen mapa interaktiboa: Establezimendu geolokalizatuen informazioa aurkeztea, udalaren webgunean eta GEO Vitoria web-aplikazio progresiboan ikusteko.<br><br>Tokiko merkataritza sustatzeko kanpaina: “Aldatu “txipa” eta erosi hemen”.<br><br>Merkataritza-ekitaldi original eta berritzaileak antolatzea, sektoreko elkarteekiko lankidetzan.<br><br>Lankidetza-hitzarmenak merkataritza- eta ostalaritza-sektoreko beste eragile batzuekin, dinamizazio-ekintzei laguntzeko. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Merkataritza-establezimenduen mapa interaktiboa: negozio-bilatzailea handitu eta eguneratzea. |
| Eguberrietako argiztapena. |
| Eragile eta elkarteekin sinatutako hitzarmenak berritzea, hala badagokio. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Tokiko merkataritzak bizia ematen dio hiriari, aberastasuna eta enplegua sortzen ditu eta kontsumo-eredu iraunkorragoa lortzen laguntzen du. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 8.3 HELBURUA: Enpresa txiki eta ertainak sustatzea<br><br>4.7 HELBURUA: Hezkuntza globala sustatzea, garapen jasangarriaren alde.<br><br>12.1 HELBURUA: Kontsumo- eta ekoizpen-modu iraungarrien esparru-aplikazioa |

# 4.2 konpromisoa.- MERKATARITZA-LOKALAK DINAMIZATZEKO PLANA DISEINATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | María Nanclares |
| **SAILA** | Ekonomia Sustapena, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa |
| **HELBURUAK** | Gasteizko Merkataritza eta Ostalaritza Udal Plan Estrategikoaren helburu nagusia da "egungo merkataritza- eta ostalaritza-egiturari eustea eta hori sendotzea, kontsumo jasangarri eta gertukoa erreferente bihurtuz bertakoentzat eta bisitarientzat".<br><br>Merkataritza-lokalak dinamizatzeko plan honen helburua da establezimendu komertzial irekien etengabeko galera iraultzea eta hiriko zenbait guneren merkataritza-erakargarritasuna indartzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Proiektu berritzaile eta integral bat jarri nahi da abian, kale mailan hutsik dauden eta merkataritza-erabilerarako prest dauden lokalak berraktibatzeko eta, hartara, merkataritza- eta/edo zerbitzu-eskaintza osatu eta kale, ardatz edo auzo horretako biztanleek eskatzen duten erabilera-nahasketa lortzeko. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Lokal erabilgarrien errolda. |
| Diagnostikoa eta ekintza pilotuaren proposamena. |
| Aplikazio informatiko bat garatzea negozioetarako merkataritza-lokal onenak hautatzeko. |
| Hutsik dauden lokalak dinamizatzeko jarduerak. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Hiriko merkataritza-bizitza biziberritzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiriguneak, hiri-inguruak eta landa-eremuak lotzeko laguntza<br><br>8.3 HELBURUA: Enpresa txiki eta ertainak sustatzea |

# 4.3 konpromisoa.- KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA EGITEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña |
| **SAILA** | Kultura eta Hezkuntza |
| **HELBURUAK** | Plan estrategiko batez hornitzea, gure helburuak nola lortu antolatu eta ebaluatuko duen ibilbide-orria izango baita.<br><br>Herritarren erabilerei eta beharrei buruzko inkesta bat egitea, diagnostikoa osatzeko, haien benetako beharrak kontuan hartuta. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Honako premisa hauen arabera egindako plan estrategiko bat zehazten lan egingo dugu:<br><br>Partaidetzaren bidezko plana izatea, tokiko kultura-eragileekin lankidetza estuan landua, genero-ikuspegia eta euskararen sustapena zeharkako elementu gisa barne hartuko dituena.<br><br>Plan estrategikoa kulturaren alorreko udal jardueraren ibilbide-orria izango da, agintaldirako helburu eta erronka nagusiak zehaztuko ditu, eta ekintzaren jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleak zehaztuko ditu, etengabeko hobekuntzarako estrategia gisa, eta gardentasunaren berme gisa. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Jarduteko beharrak eta lehentasunak zehaztea. |
| Egin beharreko jarduketak hautatzea, prozesu parte-hartzaile baten bidez. |
| Obrak kontratatzeko baldintza-agiriak lantzea. |
| Proiektuak gauzatzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Herritarrei eta tokiko kultura-eragileei kulturaren alorreko udal-jarduerari buruzko informazio argia eta ordenatua ematea, eta ibilbide-orri argi eta eraginkor batez hornitzea, zeinak jarduna antolatu eta adierazitako erronkak eta helburuak lortzen lagunduko baitu. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak. |

# 4.4 konpromisoa. PRINCIPAL ANTZOKIA ERABERRITZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña |
| **SAILA** | Kultura eta Hezkuntza<br>Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak sinatutako hitzarmenaren bidez finantzatutako proiektua, ekipamendu eszenikoa erosteko proiekturako eranskina barne. |
| **HELBURUAK** | Gasteizko Principal antzokirako ekipamendu eszenikoa erosteko baldintza-agiria lizitatzea.<br><br>Plan bat diseinatzea, obrak egiten diren bitartean programazioa bermatzeko.<br><br>Félix Petite antzokia egokitzea, antzerki-programazioa bertan gauzatzeko.<br><br>Musika-programazioa María de Maeztu auditoriumera eramatea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteizko Principal antzokia osorik eraberritzeko proiektua urte amaieran lizitatuko da. Lanak 2024ko irailean hastea espero da, eta 30 hilabete irautea.<br><br>Hiri Ereduaren eta Hirigintzaren Saila arduratuko da lanez. Kultura eta Hezkuntza Sailean ekipamendu eszenikoa erosteko proiektuari ekin behar diogu, eraberritze proiektua finantzatzeko hitzarmenean aurreikusitako eranskina aktibatu ondoren, eta Gasteizko Principal antzokian orain garatzen den programazioa hartzeko kokapen egokienak baloratu eta erabaki behar ditugu. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Rkipamendu eszenikoaren agiri teknikoa egiteko kontratazioa egitea. |
| Lanak egin bitartean, Principal Antzokiko programazioa hartuko duten espazioak definitzea eta Gasteizko Antzokien Sarea egokitzea, programazio hori baldintza onenean gauzatzeko. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Gasteizko hiria azpiegitura moderno eta seguru batez hornitzea, Principal antzoki berritu batez. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>Instalazioa egokitzea eta eguneratzea, azpiegitura modu iraunkorrean hobetzeko. |

## 4.5 konpromisoa.- UDAL DANTZA KONTSERBATORIOAREN MIGRAZIOA ETA UDAL DANTZA ESKOLA SORTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña |
| **SAILA** | Kultura eta Hezkuntza<br>Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak sinatutako hitzarmenaren bidez finantzatutako proiektua, ekipamendu eszenikoa erosteko proiekturako eranskina barne. |
| **HELBURUAK** | José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera migratzeko prozesua osatzea, irakaskuntza arautuak ezartzeko.<br><br>José Uruñuela Udal Dantza Eskola sortzea, arautu gabeko irakaskuntzari estaldura emateko. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Dantza Kontserbatorioa euskal sare publikoan integratzea, irakaskuntza arautuak ezartzeko. Parte-hartzaileak: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoaren Saila, Gasteizko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Saila, Gasteizko Udaleko Ogasun Saila eta Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoaren Saila. Eskatutako betekizunak —euskara-eskakizunak, irakaskuntza arautuan irakaskuntza-funtzioak garatzeko prestakuntza eta aldatu beharreko dotazioen lanaldi-ehunekoak— bete ondoren, Kontserbatorioa kokatuta dagoen lurzatiarekin lotutako alderdiak kudeatzea falta da.<br><br>Erakundearteko mahaian lan egiten ari da, 2018an hasitako prozesua osatzeko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Jarduteko beharrak eta lehentasunak zehaztea. |
| Egin beharreko jarduketak hautatzea, prozesu parte-hartzaile baten bidez. |
| Obrak kontratatzeko baldintza-agiriak lantzea. |
| Proiektuak gauzatzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Dantzako prestakuntza arautuaren eskaerari Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik erantzutea, eta dantzako irakaskuntza ez-arautuari Gasteizko Udalaren dantza-eskolaren bidez erantzutea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 4. HELBURUA: Kalitatezko hezkuntza.<br><br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak. |

# 4.6 konpromisoa.- MONTEHERMOSO KULTURUNEA BULTZATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña |
| **SAILA** | Kultura eta Hezkuntza |
| **HELBURUAK** | Montehermoso kulturunea tokiko artisten kolektiboarekin eta arte eta kultura garaikidearekin konprometitutako erreferente gisa sendotzea.<br>Zentroak tokiko artisten proiektuen ekoizpenean, erakusketan eta zabalkundean izan duen ibilbidea ikusaraztea.<br>Arte plastikoen eta ikus-entzunezkoen ekoizpenari eta hedapenari laguntzeko ildoak garatzen jarraitzea.<br>Publiko berrien sorrera bultzatzea, sormena eta gogoeta sustatuz eta herritarrekiko bitartekaritza-gune gisa jardunez.<br>Beste erakunde eta eragile batzuekiko lankidetzei eta lan- eta truke-sareei eustea eta horiek indartzea, egungo lankidetza- eta koprodukzio-proiektua.<br>Publikoak prestatzeko estrategiak indartzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Montehermoso Kultura Zentroa erreferente bihurtu da arte eta kultura garaikidea sustatzeko eta zabaltzeko, arte-sorkuntzaren ziklo osoa hartzen baitu barne: ekoizpena, erakusketak zentroan bertan, eta tokiko proiektuen zabalkundea.<br><br>Era berean, tokiko testuinguruarekin eta sostengu ematearekin konprometitutako gunea da, eta komunitatearen eta tokiko artisten parte-hartze aktiborako baliabideak eskaintzen ditu. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Zentroa lankidetza publiko-pribaturako gune ireki gisa finkatzea. |
| Zentroaren kultura-ekintza eta sinergien eragile gisa duen eginkizuna ikusarazteko eta balioesteko estrategiak planteatzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Herritarrei programazio egonkorra eskaintzea, arte eta kultura garaikidearen alorreko erakusketara eta prestakuntzara bideratua. Hiria hurbileko gune erreferente batez hornitzea, publiko berriak sortzen laguntzeko eta pentsamendu kritikoa sustatzeko, bizikidetzatik eta lan artistikoaren eta sorkuntza-prozesuaren ulermenetik abiatuta. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak. |

## 4.7 konpromisoa.- UDAL ARTXIBOAREN BALIOA NABARMENTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña |
| **SAILA** | Kultura eta Hezkuntza |
| **HELBURUAK** | Udal Artxiboaren jarduera eta funtsak ikusaraztea.<br><br>Udal Artxiboko kultura-ondarea herritarrengana hurbiltzeko ekintzak egitea.<br><br>Tokiko artisten funts propioen digitalizazioa indartzea.<br><br>Udal Artxiboaren zabalkundea eta prestakuntza- eta informazio-jardueren antolaketa indartzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Udal Artxiboak funts handia eta aberatsa du; hori ezagutzeak geure historia ulertzen laguntzen du, eta, kasu askotan, hainbat eremutan gaur egun sortzen diren dinamikak ulertzeko gakoak ematen ditu.<br><br>Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu plan espezifiko bat ezartzea, bai artxiboaren funtsetara bai zentrora bertara sartzeko aukera indartzeko; izan ere, trenbidearen beste aldean dauden beste gune eta zentro batzuk bezala, nahiko ezezagun gertatzen da herritarrentzat, oro har.<br><br>Gainera, beste erakunde batzuekiko lankidetza indartuko dugu, hala nola Eusko Jaurlaritzarekikoa, dugun funtsa berreskuratu, digitalizatu eta zabaltzeko baliabide gehiago eskuratzeko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Jarduteko beharrak eta lehentasunak zehaztea. |
| Egin beharreko jarduketak hautatzea, prozesu parte-hartzaile baten bidez. |
| Obrak kontratatzeko baldintza-agiriak lantzea. |
| Proiektuak gauzatzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Udal Artxiboan eskuragarri dagoen funtsa ikusaraztea, herritarrentzat interesgarri izan daitekeen informazioa emanez, hiriaren jatorria eta historia eta bertako biztanleen usadioak eta ohiturak azaltzen baititu. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak. |

# 4.8 konpromisoa.- IRADIER ARENARAKO ALTERNATIBEN AZTERKETA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña |
| **SAILA** | Kultura eta Hezkuntza |
| **HELBURUAK** | Egungo ekipamenduak dituen zailtasun nagusien azterketa sendo eta fidagarria egitea, batez ere esparruaren akustikari dagokionez (barrualdekoa zein kanporako zarata-maila). Era berean, espazioaren banaketa eta zuzkidura orokorra aztertzea.<br><br>Behar bezala arrazoitutako eta aurrekontuan sartutako proposamen alternatiboak aurkeztea, bideragarritasunari arreta berezia jarrita. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Beharrezkotzat jotzen da esparruaren egungo mugei buruzko azterketa sendo eta sakon bat izatea, alternatiba argi, fidagarri eta bideragarriak proposatu ahal izateko, azkenean, kokapenagatik hirian erreferentziala izan daitekeen arren gaur egun askotariko jardueren edukiontzia den espazio bati erantzun ahal izateko.<br><br>Horretarako, beharrezkoa izango da analisi-proiektu bat enkargatzea ingeniaritza edo enpresa espezializatu bati. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Egoeraren azterketa eta aukeren proposamena barne hartzen dituen azterketa egitea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Gasteizko hiria ekipamendu eroso, funtzional eta egoki batez hornitzea, gure inguruko hirietara iritsi ohi diren tamaina ertaineko musika-, dantza- eta ikuskizun-zirkuituetan parte hartzeko aukera emango digun programazio egonkorra eskaintzeko. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak. |

## 4.9. konpromisoa.- HERRITAR GUZTIEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK SUSTATU ETA BABESTEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Maria Nanclares |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna. Euskara Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Udalaren jarduera eta ekintza guztietan herritarren hizkuntza-eskubideak betetzea eta sustatzea. Hizkuntza-eskubideen urraketen ondorioz, egon litekeen kexa-kopurua murriztea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Udalak zuzenean edo kontratu bidez ematen dituen zerbitzuetan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuko dira. Horretarako, herritarrei aukera emango zaie nahi duten hizkuntza erabiltzeko.<br><br>Aukera emango zaie jarduera baten edizio batzuk hizkuntza batean eta jarduera berberen beste edizio batzuk beste hizkuntza ofizialean izateko.<br><br>Era berean, Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza batean zein bestean aritzeko egon litezkeen trabak kentzeko,eta, herritarrek ahalegin berezirik egin gabe, eskubide horiek bermatzeko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plana onestea eta garatzea. |
| Hizkuntza-eskubideen urraketarik egonez gero, zerbitzu arduradunarekin batera neurri zuzentzaileak jartzea. |
| Izaskun Arrue Kulturgunea euskal kulturaren erreferente bihurtzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Herritar guztiak berdin tratatzea, hizkuntzarengatik bereizkeriarik sufritu gabe. |
| Hizkuntza-berdintasunean harrera eta zerbitzuak jasotzea |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea.<br>11. HELBURUA: Hiri eta komunitate iraunkorrak. |

# 4.10 konpromisoa. KIROL-ESKAINTZA HOBETZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetza |
| **HELBURUAK** | Jarduera fisikoa eta kirola sustatzea pertsonen bizitzan, osasunaren, gozamenaren, bizikidetzaren eta gizarte-harremanen iturri gisa. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | 1. “Kirol hitzorduak”´ antolatuko ditugu, espazio publikoko leku ezberdinetan hainbat kirol-modalitate taldean praktikatzea ahalbidetzeko. Herritar ororentzat izango dira, eta monitore espezifikoek gidatuko dituzte.<br>2. Programazioan egun zabaltzen ari diren kirol-jarduera berriak txertatzea, hala nola skateboarding, bossball, beisbol, softball eta irristaketa-diziplina berriak.<br>3. Gazteenentzako programazioa, bereziki gustatzen zaizkien jarduerak landuz, hala nola naturako abentura. Naturaz familian gozatzeko programak ere landuko ditugu.<br>4. Adinekoentzako kirol-jardueren eskaintza zabala.<br>5. Jarduera inklusiboen eskaintza zabala.<br>6. Estatuan, nazioartean edo munduan podiemera igotzea lortu duten gure kirolariak aintzatesteko urteko gala, ikusgarritasun handiagoa emateko eta haien ahaleginari eta sakrifizioari balioa emateko.<br>7. Kirol-aldizkari digitala bultzatu eta eguneratzea, eduki berriekin.<br>8. Abonatuen sistema indartzea, kirola praktikatzeko oinarrizko ardatz gisa, talde zaurgarrienentzako hobariak eskainiz. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Kirol hitzorduak. |
| Tokiko kirolariak aintzatesteko urteko gala. |
| Eskaintzaren aniztasuna handitzea: kirol-jarduera berriak, adinekoentzako kirol-jarduerak, jarduera inklusiboak. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Herritar guztientzako jarduera-eskaintza zabalagoa eta askotarikoa. |
| Herritarren kirol-praktika handitzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea.<br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak.<br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantza |

# 4.11 konpromisoa.- KIROL INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetza |
| **HELBURUAK** | Kirol-espazioen mantentzea eta erabilera optimizatzea. Kirol-erakundeetarako urteko erreserbak aurreratzen saiatuko gara. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Mendizorrotzeko eraikin soziala eraberritzea, aldagelak, komunak eta kafetegia egokitzeko, dibertsitate funtzionala duen edonorentzat irisgarria izan dadin.<br><br>Ariketa gelak berregokitzea, makina berriagoez hornitzeko; QR kodeak ere sortuko ditugu, ariketak egiteko aholkuak emateko.<br><br>Udal-instalazioetako kirol-materiala egoera onean mantentzea, jarduera fisikoa egitea errazteko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Erreserben deialdi aurreratuak. |
| Makineria eta instalazioak eguneratzea. |
| Futbol-zelaiak berritzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Plangintza eta norberaren bizitza eta familia bateragarri egitea hobetzea. |
| Herritarrentzako ekipamenduak eta instalazioak modernizatzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br>4. HELBURUA: Kalitatezko hezkuntza.<br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak. |

## 4.12 konpromisoa.- MATURANA VERASTEGUI JAUREGIA KONSOLIDATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saila |
| **HELBURUAK** | Udalaren kultura-ondarea sendotzea, balioa emateko.<br><br>Kultur balioa duten higiezinetan interes publiko eta sozialeko jarduerak ezartzea, kolektiboki gozatu eta aprobetxatzeko. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Higiezina sendotzeko obrak burutzea, espazio irekien eta erabilgarrien banaketa gizarte-intereseko jarduera-eremu batera bideratzeko utzita.<br><br>Zehazki, estalkia berreraikiko da, inguratzailea berrituko da leihoak berrituz eta fatxada nagusia zaharberrituko da.<br><br>Birgaitzeak eraikinari erabilera turistiko kulturala ematea ahalbidetuko du. Proiektuak Next Generation Europako Funtsen laguntzak ditu. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Kontsolidazio-proektua entregatzea. |
| Obren lizitaziorako deialdia. |
| Obren hasiera (18 hilabeteko exekuzioarekin). |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Hiriko ondare historikoa berreskuratzea, espazioari erabilera turistiko kulturala ematea, Erdi Aroko hirigunearen ingurua dinamizatuz. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br>12. HELBURUA: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.<br>13. HELBURUA: Klimaren aldeko ekintza.<br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak. |

## 4.13 konpromisoa. GASTEIZ HIRI ERREFERENTE BIHURTZEA KIROL-EKITALDIEN ALORREAN

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetza |
| **HELBURUAK** | Nazioko, nazioarteko edo munduko kirol-ekitaldiak erakartzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Kirol-ekitaldi handien egutegia egokiagoa izan dadin, hiriak hobeto aprobetxa dezan haien eragin ekonomikoa. Beste sail batzuekin lankidetzan egingo dugu, ez daitezen denboran bat etorri beste ekitaldi handi batzuekin.<br><br>Herri kirolen aldeko apustua egiten jarraituko dugu, gure kulturaren parte denez ez baitugu ahaztu behar. Horretarako, pilota federazioarekin, herri kirolen federazioarekin eta boloen federazioarekin lanean jarraituko dugu. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Tokiko txapelketak antolatzea. |
| Txapelketa nazionalak eta/edo nazioartekoak antolatzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Gasteizen irudia sustatzea kirolaren hiri gisa. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea.<br><br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak.<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzaK |

# 4.14 konpromisoa.- HIRIA DINAMIZATZEN DUTEN EKITALDIAK BULTZATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana Rosa López de Uralde |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna. |
| **HELBURUAK** | Hiri iraunkor, ireki eta dinamikoaren irudia sustatzen laguntzen duten ekitaldiak eta proiektuak babesteko jarduerak bultzatzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteiz hiri berde eta abegikorraren irudia indartzeko balio duten ekitaldiak eta proiektuak garatzeko eta ospatzeko hiri gisa sustatzea, bisitatzera gonbidatzen duena, eta, ondorioz, tokiko enpresetara eta enplegua sortzera itzultzea. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Tokiko txapelketak antolatzea. |
| Nazioko eta/edo nazioarteko torneoak antolatzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Kalitatezko aisialdi-eskaintza eta dinamismo sozial eta ekonomiko handiagoa izatea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 3. HELBURUA: Osasuna eta ongizatea.<br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak.<br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzaK |

| ARDATZA | LAN-ESPARRUAK | KONPROMISOAK |
| --- | --- | --- |
|  **5** **AUZOEN ETA HERRIEN HIRIA**  | Auzoen garapena eta hiri-berroneratzea | “Auzoen hiria” auzo-plana lantzea |
| | | Zaramaga auzoa birgaitzeko plana gauzatzea |
| | | Zaramaga auzoko espazio publikoa berritzea |
| | | Zabalgunea eta erdi aroko hirigunea berritzea. erdialde bizi-bizia |
| | | Renovar el Ensanche y el Casco Medieval: El centro con vida |
| | | Legutianoko atea berritzea |
| | | Gasteizko erdi aroko hirigunean birgaitze integraleko plan berezia berrikustea |
| | | Herrandarren kalea eraberritzeko lanen lehenengo fasea gauzatzea |
| | | Eskolako jolastokietan naturalizazio eta itzalak sortzeko proiektua zabaltzea eta sendotzea |
| | | Menpeko toki-erakundeetan espazio publikoa hobetzeko plana diseinatzea |
| | Kalitateko ekipamendu eta zerbitzu publikoak | Udal-eraikinak Mantentzeko Gida-plana osatzea |
| | | Gizarte-etxeak eta elkarteen etxeak onik zaintzeko lau plana |
| | | Udal-eraikinetan energia berriztagarriak kudeatzeko eta kontrolatzeko ildoa sortzea |
| | | Garbiketa eta hondakinen bilketa hobetzea |
| | | BECOOP Aberasturi proiektua kontsolidatzea |
| | | Mugikortasun iraunkorreko landa-plana osatzea |
| | | Basoetako eta hiri-baso konexioko suteak prebenitzeko plana |
| | | Landa-eremuko Biodibertsitatea + plana inplementatzea |

# 5. ardatza: Auzoen eta herrien hiria

Auzoetatik abiatutako hiria egin nahi dugu, bertako bizilagunen bizi-kalitatea hobetuko duten proiektuekin eta elkarteen parte-hartzearekin.

Auzo bakoitzak nortasun, esentzia eta ezaugarri desberdinak ditu, eta bakoitzak behar duenari erantzuteko erantzukizuna du Udalak. Auzo zaharrenetatik -garapen industrialarekin jaio zirenetatik- gazteenetara, guztiek lagundu dute eta laguntzen dute gure hiriak aurrera egin dezan. Hala, arreta berezia merezi dute.

Lehentasunak eta urgentziak ezarriz lan egingo dugu, baina baita etorkizuna diseinatuz ere, auzo berrituez, ondo zainduez, kohesionatuez, eta azpiegitura eta zerbitzu onak dituztenez gozatzeko.

Gure auzoek aurrera egiten badute, bertako bizilagunek ere egingo dute.

Auzoak hobetzen baditugu, Gasteiz hobea egingo dugu.

# 5.1 konpromisoa.- “AUZOEN HIRIA” AUZO-PLANA LANTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Beatriz Artolazabal |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak. |
| **HELBURUAK** | Hiriko mantentze-lanak hobetzea.<br><br>Argiteria publikoa areagotu eta berritzea.<br><br>Inausketak hobetzea eta berdeguneak eta zuhaitzak kontserbatzea.<br><br>Espazio publikoa, plazak, kaleak eta abar eraberritzeko obra esanguratsuak egitea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | “Auzoen Hiria” plana tresna bat da ahalbidetuko diguna planifikazio integratu bat izatea, auzoetako bizilagunekin eta gizarte-eragileekin bateratua.<br><br>Auzoetako espazio publikoa hobetu eta eraberritzeko plana.<br><br>Saila eskuragarri dagoen informazio guztia biltzen ari da hainbat iturrietatik: HOBETUZ, herritarren postontzia, kontu-emateko karpak, inkestak eta abar. Informazio hori kontrastatu eta osatuko da 2024ko lehen hilabeteetan gauzatuko den entzute-prozesu osagarri batean.<br><br>Jarraian zehaztu dut epe labur eta ertainean gauzatuko diren jarduera multzo bat, batez ere espazio publikoari dagozkionak. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Auzoak hobetzeko informazio eta proposamenak jasotzea. |
| Jarduerak hiritarrekin eta gizarte-eragileekin kontrastatzea eta berrikustea. |
| Hurrengo lau urteetarako plana osatzea. |
| Jardueren hasiera, urteko plangintzari jarraiki. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Hiriko auzo guztietako espazio publikoa eta mantentzea hobetuko da; arreta berezia jarriko da zona bakoitzeko gairik garrantzitsuenetan, hiritarrek azkenaldian egiten ari diren eskaerak eta hobekuntza-proposamenak kontuan hartuta. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11.7 HELBURUA: Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten<br><br>13.1 HELBURUA: Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuenganako erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde |

# 5.2 konpromisoa.- ZARAMAGAKO HIRI-BERRONERATZEKO PROIEKTUA GARATZEA

| | |
|---|---|
| ZINEGOTZI ARDURADUNA | Borja Rodriguez Ramajo |
| SAILA | Ensanche 21 Zabalgunea.<br>Eusko Jaurlaritzak finantzatutako du proiektua, eta honako hauek jardungo dute bertan: Espazio Publikoa, Gazteria, Kultura, Gizarte Politikak, Ekonomia Sustapena, Gobernu Irekia eta Gizarte Etxeak, Kirola eta Administrazioaren Modernizazioa. |
| HELBURUAK | Eraikinen energia-eraginkortasuna eta irisgarritasuna hobetzeaz gain, auzo ahulenetako gizarte-, ekonomia- eta gobernantza-alderdiak ere modu integralean birsortzea.<br>Etxebizitzen eko-birgaitzea kudeatzea. |
| KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA | Zaramagako hiri-berroneratzeko proiektua Eusko Jaurlaritzaren PIIE24 inbertsio estrategikoen erakunde arteko planaren barruan dago, eta Gasteizko Udaleko Gobernuak ZARAMAGA auzoko hiri-, gizarte- eta ingurumen-berroneratzean jarduteko hartutako konpromiso estrategikoetako bati erantzuten dio. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Esku-hartzearen proiektua idazteko baldintza-agiriak prestatzea. |
| Egin beharreko jarduketak hautatzea, prozesu parte-hartzaile baten bidez. |
| Obrak kontratatzeko baldintza-agiriak osatzea. |
| Proiektuak gauzatzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Espazio publikoaren kalitatea hobetzea, kale eta plaza berritu eta irisgarriagoen bitartez. |

| | |
|---|---|
| GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK | 11.7 HELBURUA: Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten<br>13.1 HELBURUA: Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuenganako erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde |

# 5.3 konpromisoa.- ZARAMAGAKO ESPAZIO PUBLIKOA BERRITZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Beatriz Artolazabal |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak.<br>Eusko Jaurlaritzak finantzatutako du proiektua, eta honako hauek jardungo dute bertan: Espazio Publikoa, Ensanche 21 Zabalgunea, Kultura, Gizarte Politikak, Ekonomia Sustapena, Gobernu Irekia eta Gizarte Zientziak, Kirola eta Administrazioaren Modernizazioa. |
| **HELBURUAK** | Espazio publikoa hobetzea, azpiegitura berdearen bitartez.<br>Oinezkoen irisgarritasuna hobetzea.<br>Mugikortasun iraunkorra sustatzea.<br>Energia-kontsumoan iturri berriztagarrien sistemak txertatzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Zaramagako hiri-berroneratzeko proiektua Eusko Jaurlaritzaren PIIE24 inbertsio estrategikoen erakunde arteko planaren barruan dago, eta Gasteizko Udaleko Gobernuak ZARAMAGA auzoko hiri-, gizarte- eta ingurumen-berroneratzean jarduteko hartutako konpromiso estrategikoetako bati erantzuten dio.<br>Espazio publikoa berritzeari dagokionez, 6,5 milioi euro arte inbertituko dira oinezkoen pasabideak, kaleak, plazak, hiri-altzariak, argiztapena eta abar berritzeko. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Esku-hartzearen proiektua idazteko baldintza-agiriak prestatzea. |
| Egin beharreko jarduketak hautatzea, prozesu parte-hartzaile baten bidez. |
| Obrak kontratatzeko baldintza-agiriak osatzea. |
| Proiektuak gauzatzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Espazio publikoaren kalitatea hobetzea, kale eta plaza berritu eta irisgarriagoen bitartez. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11.7 HELBURUA: Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten<br>13.1 HELBURUA: Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuenganako erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde |

# 5.4 konpromisoa.- ZABALGUNEA ETA ERDI AROKO HIRIGUNEA BERRITZEA: ERDIALDE BIZI-BIZIA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Beatriz Artolazabal |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak.<br>Laguntzaileak: Hiri Ereduaren Saila (Hirigintza), Ekonomia Sustapenaren Saila, Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI) eta Ensanche 21 Zabalgunea. |
| **HELBURUAK** | Bi auzo horien hiri-ingurunea berritzea, kale eta plazak hobetzeko jardueren bitartez.<br>Altzari publikoak eta argiztapena berritzea.<br>Bi auzo horietako hiri-mantentze lanak sendotzea.<br>Argiztapena hobetzea eta LED lanparekin ordeztea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteiz bizi baten alde gaude, parke eta kaleak aktibitatez beteta dituela. Kalitatezko hirigintza-proiektuen alde.<br>Hirigune Historikoaren Planeko ekintzak bultzatzen jarraituko dugu, auzokideekin eta auzoko eragileekin adostuta: espazio publikoa hobetuko dugu eta Erdi Aroko hirigunea berdatzeko plana garatuko dugu.<br>Zabalgunean, merkataritza-guneak berrituko ditugu, altzari hobeak paratuz, eta mantentze-lan orokorrak eginez. Merkataritza-guneetako argiztapena hobetzeko programa bat ere ezarriko dugu, Andre Maria Zuriaren plazan egin den bezala.<br>Gainera, hirian zamalanetan diharduten ibilgailuen antolamendu egokia garatuko dugu, eta etxez etxeko banaketa sustatuko. Ordenantza berri bat sustatuko dugu patineteen eta bizikleten erabilera arautzeko, hiri osoan eta, bereziki, eremu horietan bizikidetza egokia bermatzeko. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Jarduteko estrategia prestatzea, 4 urtean garatu beharreko ekimenekin. |
| Obrak eta mantentze-lanen kontratuak esleitzea. |
| Jarduketen jarraipena egitea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Bi eremu horiek hiriko "egongelaren" parte dira, nolabait esateko. Espazio oso garrantzitsuak dira, lehenik eta behin, bertan bizi direnentzat, baina baita hiri osoarentzat ere. Hiriaren erakusleihoa dira, bai guretzat, baita bisitarientzat ere.<br>Inguru horiek berritzeak bizilagunen bizi-kalitatea hobetuko dute, eta tokiko merkataritzari zein hiriko turismoari lagunduko diete. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11.7 HELBURUA: Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten<br>13.1 HELBURUA: Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuenganako erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde |

# 5.5 konpromisoa.- LEGUTIANOKO ATEA BERRITZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Beatriz Artolazabal |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak. |
| **HELBURUAK** | Kalearen hiri-ingurua hobetzea.<br><br>Mugikortasuna hobetzea, irizpide jasangarrien arabera, eta seguruagoa bihurtuz.<br><br>Hiriko berdeguneen kopurua handitzea eta kalitatea hobetzea.<br><br>Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea eta erresilientzia areagotzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Jarduera honen helburua hiriko kale hau goitik behera berritzea da. Jarraipena eman nahi diogu 2023ko amaieran Herrandarren kaleko lehen fasearekin hasiko den berritze-proiektuari.<br><br>Kale hori berritzeko planteamenduak birgaitzeko hirigintza-proiektu bat izan beharko du, Herrandarren kalearekin egin den bezala, hiri-espazioa eratzeko filosofia berbera baitu abiapuntu. Iraungarritasunaren irizpideen arabera berritu nahi dugu kalea, pertsonentzako atseginagoa bihurtzeko, zuhaitz gehiago eta klima-aldaketaren aurrean erresilienteagoa, mugikortasun-eredu iraunkorragoaren aldeko apustua egingo duena, besteak beste bizikleta-errei baten bidez. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Herritarrek parte-hartze prozesua, eta proiektua idazteko baldintza-agiria lantzea. |
| Finantzaketa lortzea. |
| Eraikuntza-proiektua osatzea. |
| Obrak esleitzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Herrandarren kalearen lehen zatia erabat berritzea: berdegune gehiago izango ditu, baretu egingo da trafikoa, egonleku berriak eta altzari publiko berrituak izango ditu.<br><br>Herritarrek hiri-ingurune berri bat izango dute, bertan bizi eta ibiltzen direnentzat atseginagoa. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11.7 HELBURUA: Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten<br><br>13.1 HELBURUA: Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuenganako erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde |

## 5.6 konpromisoa.- GASTEIZKO ERDI AROKO HIRIGUNEAN BIRGAITZE INTEGRATUKO PLAN BEREZIA BERRIKUSTEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Hirigune historikoa eta hirigune-bilbearen integrazioa bermatzea.<br><br>Paisaia-balioak babesteko neurriak areagotzea.<br><br>Espazio, eraikin eta gainerako elementu esanguratsuen historia- eta forma-balioak babestea.<br><br>Espazio libreak berreskuratu eta berroneratzea.<br><br>Bide-egituraren antolamendua hobetzea.<br><br>Energia iturri berriztagarriak sartzea |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Planaren berrikusteari ekitea ikuspuntu parte-hartzaile batetik abiatuta, auzokoekin elkarlanean arituz, antolamendu adostua lortzeko. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Aurreko fasea eta plana idaztea. |
| Sintesia egitea eta alegazioei erantzutea. |
| Behin betiko onespena ematea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Erdi Aroko hirigunea bizilagunei hobeto egokitzea eta interes historiko-artistikoko monumentu-multzo gisa hobeto garatzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA Hiri eta komunitate jasangarriak.<br><br>17. HELBURUA Helburuak lortzeko aliantzak. |

## 5.7 konpromisoa.- HERRANDARREN KALEA ERABERRITZEKO LANEN LEHENENGO FASEA GAUZATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Beatriz Artolazabal |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak. |
| **HELBURUAK** | Kalearen hiri-ingurua hobetzea.<br><br>Mugikortasuna hobetzea, irizpide jasangarrien arabera, eta seguruagoa bihurtuz.<br><br>Hiriko berdeguneen kopurua eta kalitatea handitzea, biodibertsitatearen alde.<br><br>Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea eta erresilientzia areagotzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Proiektuak hiriko kale nagusi eta handi horren hiri-ingurune osoa hobetu nahi du: ingurune osasungarriagoa, kutsadura eta zarata gutxiago, eta jendearentzako espazio gehiago eskainiko duen birmoldaketa integrala. Ingurune berritua izango da amaieran, altzari eta egonleku berriekin.<br>Gainera, kalearen azpiegitura berdea hobetuko da.<br>Bide-segurtasuna hobetzeko ere arituko gara, bidegurutzeetan oinezkoen babesguneak jarriz eta mugikortasun aktiborako eta oinezkoentzako espazio gehiago jarriz.<br>Hartara, proiektuak bero-uharte efektua murriztea ahalbidetuko du –berdegune gehiago eta asfalto gutxiago lagun–. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Esku-hartzearen proiektua idazteko baldintza-agiriak prestatzea. |
| Proiektua esleitzea eta herritarrei horren berri ematea. |
| Obren hasiera. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Herrandarren kalearen lehen zatia erabat berritzea: berdegune gehiago izango ditu, baretu egingo da trafikoa, egonleku berriak eta altzari publiko berrituak izango ditu.<br><br>Herritarrek hiri-ingurune berri bat izango dute, bertan bizi eta ibiltzen direnentzat atseginagoa. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11.7 HELBURUA: Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.<br><br>13.1 HELBURUA: Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuenganako erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde guztietan. |

# 5.8 konpromisoa.- IKASTETXEETAKO JOLASTOKIAK NATURALIZATZEKO PROIEKTUA ZABALDU ETA SENDOTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña |
| **SAILA** | Kultura eta Hezkuntza |
| **HELBURUAK** | Programa honen helburua haur-eskoletako eta udal-titulartasuneko ikastetxeetako jolastokiak naturalizatzea da, klima-aldaketari aurre egiteko, ingurumen-hezkuntza sustatzeko, berdintasun-politiken araberako patio-erabilerak sustatzeko, eta ikasle guztiak patioaren erabilera inklusiboan integra daitezen bultzatzeko. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Proiektua gauzatzeko, hiru udal-arlo koordinatu eta inplikatuko dira (Hezkuntza, Mantentze Zerbitzua eta IGI, Ingurugiro Gaietarako Ikastegia), eskolako jolastokietan zuhaitzak, konpostaje-espazioak eta espazio horien naturalizazioa erraztuko duten beste elementu batzuk jartzeko asmoz.<br><br>Ildo beretik, eta adierazitako helburuekin bat etorriz, jarduketa bat egin da bi eskola-jolastokitan, itzal-espazioak jartzeko, klima-aldaketaren aurrean gero eta premia larriago bati erantzuteko.<br><br>Espazioak naturalizatzearekin batera, aire zabalen jolasen eta bestelako jardueretan aritzeko itzal-espazioak erraztuko dituzten ekipamenduez hornitzen dira. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Jarduteko beharrak eta lehentasunak zehaztea. |
| Egin beharreko jarduketak hautatzea, prozesu parte-hartzaile baten bidez. |
| Obrak kontratatzeko baldintza-agiriak lantzea. |
| Proiektuak gauzatzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Txiki-txikitatik balioetan hezten laguntzea, naturari eta ingurumenaren babesari dagokienez. Aldi berean, eskolei haurren garapen integralerako espazio egokiagoak ematen zaizkie. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 4. HELBURUA: Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea. |

# 5.9 konpromisoa.- MENPEKO TOKI-ERAKUNDEETAN ESPAZIO PUBLIKOA HOBETZEKO PLANA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Miren Fernández de Landa |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak. Landa Eremuaren Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Menpeko toki-erakundeen hiri-ingurunea, azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzea.<br><br>Landa-eremuan hainbat inbertsio bermatzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Planak jarraipena ematen dio aurreko agintaldian (2019-2023) egindakoari, inbertsioen bidez menpeko toki-erakundeen espazio publikoa hobetzeko asmoz.<br><br>Gauzatuko diren esku-hartzeak menpeko toki-erakundeekin adosten dira, eta horiek jarduketa-lehentasunak zehazten laguntzen dute.<br><br>Agintaldi honetan, aurreko lau urteetan egindako inbertsioa gainditzea aurreikusten da, ahalik eta esku-hartze gehien bideratu ahal izateko. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Bilerak eta lan-saioak egitea erakundeekin, lehentasunak zehazteko. |
| Inbertsio-planaren dokumentua osatzea. |
| Hurrengo lau urteetan gauzatzea eta jarraipena egitea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Gasteizko menpeko toki-erakundeetan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetuko dugu, eta herri horiek azpiegitura eta zerbitzu hobeak izango dituzte. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11.A HELBURUA: Hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen arteko ekonomia-, gizarte-eta ingurumen-lotura positiboak babestea, garapen nazionalaren eta eskualdekoaren plangintza sendotuz. |

# 5.10 konpromisoa.- UDAL ERAIKINAK MANTENTZEKO GIDA PLANA IDAZTEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | César Fernández de Landa |
| **SAILA** | Administrazioa Modernizatzea. Mantentze Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Udal-instalazioak erabilera-egoera onean zaintzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Udal eraikinak mantentzeko plan berria da Sailaren jardun guztien giltzarria.<br><br>Izan ere, instalazioen kopurua handitu egin da, horiek zahartzen ari dira, eta teknologia ezarri behar da.<br><br>Inoiz baino beharrezkoagoa da ibilbide-orri bat izatea instalaziorik onenak eta ahalik eta egoera onenean edukitzeko, jasangarritasun-irizpideen eta energia-eraginkortasunaren irizpideen arabera jardunez. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Lau urteko plana egitea. |
| Jardueren ezarpena eta jarraipena. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Plangintza egoki bati esker, herritarrek instalazio onak eduki ahal izango dituzte, ezinbestekoa baita zerbitzu ona bermatzeko. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11.1 HELBURUA: Hemendik 2030era, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea. |

# 5.11 konpromisoa.- GIZARTE-ETXEAK ETA ELKARTEEN ETXEAK ONIK ZAINTZEKO LAU URTEKO PLANA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Miren Fernández de Landa |
| **SAILA** | Gobernu Irekia eta Gizarte Etxeak |
| **HELBURUAK** | Instalazio guztiak onik mantentzeko beharren diagnostiko eguneratua izatea.<br><br>Gizarte-etxeetako eta elkarteen etxeetako instalazioak hobetzeko jarduerak planifikatzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Hiriko gizarte-etxeen sarea udal-zerbitzuen harribitxia da, eta hiriaren nortasunaren parte, kalitatezko zerbitzuak eskaintzen dituen hiri honn baitan.<br><br>Ezaugarri eta antzinatasun desberdineko 14 gizarte-etxez osatzen da sarea, eta gure Sailak zentro bakoitzaren beharren diagnostikoa izan nahi du, datozen 4 urteetarako plangintza egokia egin ahal izateko.<br><br>Agintaldirako plan bat egingo da, non Sailak kudeatzen dituen gizarte-etxeen zein elkarteen etxeen sarea mantentzeko beharrak jaso eta lehenetsiko baitira. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Beharren diagnostikoa egitea. |
| Plana idaztea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Planak aukera emango du gizarte-etxeetako eraikinen mantentze-lanen plangintza hobetzeko eta, beraz, zerbitzu hobea eskaintzeko. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11.1 HELBURUA: Hemendik 2030era, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea.<br><br>11.3 HELBURUA: Hemendik 2030era, hirigintza inklusiboa eta jasangarria areagotzea, eta baita giza kokaguneen kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria ere, herrialde guztietan. |

# 5.12 konpromisoa.-UDAL ERAIKINETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIAK KUDEATZEKO ETA KONTROLATZEKO ILDOA SORTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | César Fernández de Landa |
| **SAILA** | Administrazioa Modernizatzea. Mantenimendu zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Energien erabileraren eraginkortasuna hobetzea udal-instalazioetan.<br><br>Informazio eguneratua izatea, denbora errealean, instalazioen egoera ezagutzeko eta datuetan oinarritutako mantentze-lanak planifikatzeko. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Argi dago domotika ingurune profesionaletan ezartzen ari dela. Hedapen handia eskatzen du, baina, era berean, onura ukaezinak ekartzen ditu halakorik ezarrita duten sistemen kontrol prebentibo eta zuzentzailea egiteko, eta , horrenbestez, eraginkortasuna hobetzen du.<br><br>Gasteizko Udala eta, zehazki, Mantentze Zerbitzua ez da joera horretatik kanpo geratu, eta urteak daramatza instalazioak kontrolatzeko sistema telematikoak ezartzen: klima, elektrizitatea, etab. Izan ere, kontratu handietan zein etengabe egiten diren obra edo berrikuntzetan, sartuta daude horrelako lan ugari, egin beharreko inbertsioen atalean.<br><br>Aurrerapausoak eman nahi ditugu; baldintza-orrietan eta kontratazio puntualetan, gero eta maizago sartu nahi ditugu urrutiko kudeaketa-mekanismo horien ezarpen masiborako behar diren tresnak, jarduera-eremu guztietan. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Kudeaketa telematikoko eta kontroleko tresnen erosketa lizitatzea. |
| Tresna berriak inplementatzea |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Ildo berri horri esker, energiaren erabilera arrazionalagoa izango da, eta kontsumoa murriztuko da, eta, horrenbestez, baita gastua eta $CO_2$ emisioak ere. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 7. HELBURUA: Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.<br><br>7.1: Hemendik 2030era bitartean, energia-zerbitzu arrazoizko, fidagarri eta modernoetarako sarbide unibertsala bermatzea.<br><br>7.2: Hemendik 2030era, nabarmen areagotzea energia berriztagarrien proportzioa, energia-iturri guztien artean.<br><br>7.3 Hemendik 2030era, energia-eraginkortasunaren hobekuntzaren munduko tasa bikoiztea. |

# 5.13. konpromisoa.- HONDAKINAK KUDEAKETA ETA BILKETA HOBETZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Pascual Borja Borja |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | - Hiri-hondakin gutxiago sortzea, eta hondakinak murrizteko jarduerak eta prebentzio-zerbitzuak sustatzea, eta baita hondakin horiek berrerabiltzeko prestakuntza-jarduerak ere.<br>- Hondakinen gaikako bilketa eta birziklapena areagotzea.<br>- Zabortegira sartzen diren hondakinak murriztea.<br>- Gasteizko espazio publikoaren garbiketaren egoera hobetzea.<br>- Espazio publikoaren garbiketari eta kontsumo zirkularrari dagokionez, herritarrei zuzenduriko aktibazio- komunikazio- eta hezkuntza-jarduerak sustatzea, ingurumenarekiko errespetuzko jokaera izan dezaten.<br>- Ikuskaritza- eta zehapen-baliabideak hobetu eta areagotzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gaikako bilketako zerbitzuak berrikustea.<br>Kaleko garbiketa-zerbitzuak berrikustea, eta hiriko pintaketen garbiketa integralerako proiektua garatzea.<br>Erabilgarri dauden ikuskaritza- eta zehapen-baliabideak berrikustea.<br>Hondakinen garbiketa eta bilketari buruzko ordenantza berrikustea.<br>Beste bilketa-zerbitzu batzuen erregelamenduak egokitzea, hala nola garbiguneak eta Reutilizagune delako. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Zabor-bilketa eta hiri-garbiketako zerbitzuen kontratu berria esleitzea. |
| Hondakinak bildu eta tratatzeko eta hiri-garbiketako ordenantza fiskalak berrikustea. |
| Hiriko auzo guztietara zabaltzea pintaketen garbiketa taktikoaren proiektua. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Espazio publikoaren garbiketaren egoera eta hiriaren ingurumen-osasuna hobetzea. |
| Hondakin gutxiago sortzea eta hondakin horiek bildu eta kudeatzeko zerbitzuak hobetzea, birziklatzea sustatzeko eta lehengaien kontsumoa eta hiritarren ingurumen-aztarna murrizteko, kontsumo-eredu zirkularragoen bidez. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br>12. HELBURUA: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.<br>13. HELBURUA: Klimaren aldeko ekintza.<br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak. |

# 5.14 konpromisoa.- BECOOP ABERASTURI PROIEKTUAREN KONTSOLIDAZIOA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Miren Fernández de Landa |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak. Landa Eremuaren Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Biomasaren aprobetxamendu komunitarioa aktibatzea erabilera termikoetarako (batez ere berogailurako eta ur berorako).<br><br>Energia-iturriak iraungarriagoak erabiltzen laguntzea, eta erregai fosilen erabilera murriztea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Europar Batasunak finantzatutako proiektu pilotua, Horizon 2020 programaren bidez.<br><br>Proiektu honen xedea da landa eremuaren biomasa erabiltzea helburu termikoekin. Kasu honetan Aberasturi inguruko biomasa izango da, hala nola gari-ebaketaren ondoren soberan geratutako lastoa, edo inguruko basoetako biomasa.<br><br>Partaidetzako proiektua izango da, eta, arrakastatsua izan dadin, ezinbestekoa da komunitatearen inplikazioa. Proiektu honen esparruan energia-komunitate bat sortuko da, proiektua kudeatzearen arduraduna izango dena. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Energia-komunitatea sortzea. |
| Jarduerak hiritarrekin eta gizarte-eragileekin kontrastatzea eta berrikustea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Energia-iturriak iraungarriagoak lortzea, eta proiektuari atxikitako etxebizitzetan ur beroaren eta berokuntzaren energia-kostua murriztea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate iraunkorrak.<br>11.A HELBURUA: Hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen arteko ekonomia-, gizarte-eta ingurumen-lotura positiboak babestea, garapen nazionalaren eta eskualdekoaren plangintza sendotuz.<br>7. HELBURUA: Energia eskuragarria eta ez kutsagarria.<br>7.1: Hemendik 2030era bitartean, energia-zerbitzu arrazoizko, fidagarri eta modernoetarako sarbide unibertsala bermatzea.<br>7.2: Hemendik 2030era, nabarmen areagotzea energia berriztagarrien proportzioa, energia-iturri guztien artean. |

# 5.15 konpromisoa.- MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO LANDA-PLANA OSATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Miren Fernández de Landa |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak. Landa Eremuaren Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Garraio publikoaren bidez Gasteizekin konexioa hobetzea.<br><br>Landa-eremuko mugikortasunean garraiobide garbien (adibidez bizikleta, edo oinez ibiltzea) erabilera bultzatzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Zenbait urteko plan bat abiaraziko dugu Gasteizko landa-eremuan, jarduera-multzo bat abiarazteko, xede hartuta, batetik, garraio publikoaren bidezko konexioa sendotzea eta, bestetik, bizikleta eta oinezkoentzako bide-sareetan aurrera egiten jarraitzea, landa-eremuaren eta hirigunearen artean loturak sortuaz.<br><br>Jarduketak 2020-2030 aldirako Gasteizko mugikortasun jasangarriko eta espazio publikoko planarekin koordinatuko dira. Plan horretan, landa-eremuko mugikortasunari buruzko diagnostiko-datuak jasotzen dira, eta hobekuntza-jarduketa posible batzuk aurreratzen dira.<br><br>Landa-eremurako berariaz osatutako plan berri horrek landa-eremuko beharrei erantzuteko behar diren proposamen eta irtenbide guztiak bilduko ditu. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Beharrezko esku-hartze guztiak identifikatzea. |
| Plana osatzea. |
| Jarraipena eta ebaluazioa egitea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Landa-eremuko garraio publikoko zerbitzua hobetzea eta, gainera, txirrindulari zein oinezkoen konektore-sarea bultzatzea, hirigunearekin konexioa hobetzeko. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br>11.A HELBURUA: Hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen arteko ekonomia-, gizarte-eta ingurumen-lotura positiboak babestea, garapen nazionalaren eta eskualdekoaren plangintza sendotuz.<br>11.B HELBURUA: Hemendik 2020ra, nabarmen areagotzea politika eta plan integratuak bereganatzen eta ezartzen dituzten hirien eta giza kokaguneen kopurua, inklusioa, baliabideen erabilera eraginkorra, klima-aldaketaren arintzea, klima-aldaketarako egokitzapena eta hondamendien aurkako erresilientzia hobetzeko asmoz. |

# 5.16 konpromisoa.- BASOETAKO ETA HIRI-BASO KONEXIOKO SUTEAK PREBENITZEKO PLANA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Miren Fernández de Landa |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak. Landa Eremuaren Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Landa eremuko basoen suteetan erantzuteko denbora hobetzea.<br><br>Udaleko eta Foru Aldundiko suhiltzaile-kidegoekin lankidetzan aritzea suteak itzaltzeko.<br><br>Basoetako zuhaiztien baldintzak hobetzeko jarduerak aktibatzea, su-heziak, paxa lagungarriak, eta abar mantenduz. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Klima-aldaketak eremu guztietan eragingo digu, eta eremu guztietan egokitu behar gara, irtenbideak bilatuz. Beroaldiak lehenago gertatzen dira, luzeago eta larriagoak dira, eta prezipitazioak kontzentratu egiten dira. Horren ondorioz, gure udalerrian ere baso-suteak izateko probabilitatea handiagoa da. Testuinguru honetan, beharrezkoa da “aurre hartzea, prebenitzea eta heztea fenomeno kaltegarri hauek arintzeko.<br><br>Nekazaritza eta abelzaintzako sektoreak ere parte hartu du planean. 27 nekazari boluntariok talde bat osatu udalerri osoan sakabanatuta, suterik gertatuz gero jardungo dena. Talde horrek suhiltzaileen zerbitzuak emandako prestakuntza jaso du, suterik gertatuz gero, berehala lan egin ahal izateko bertan. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Boluntarioen ekipoen prestakuntza |
| Jarduera-plana prestatzea |
| Exekutatzea, eskumena duten suhiltzaileen kidegoekin elkarlanean. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Suteak gertatzen direnean erantzuteko gaitasuna hobetuko da, eta, beraz, landa eremuan segurtasuna areagotuko da. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak.<br>11.A HELBURUA: Hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen arteko ekonomia-, gizarte-eta ingurumen-lotura positiboak babestea, garapen nazionalaren eta eskualdekoaren plangintza sendotuz.<br>11.B HELBURUA: Hemendik 2020ra, nabarmen areagotzea politika eta plan integratuak bereganatzen eta ezartzen dituzten hirien eta giza kokaguneen kopurua, inklusioa, baliabideen erabilera eraginkorra, klima-aldaketaren arintzea, klima-aldaketarako egokitzapena eta hondamendien aurkako erresilientzia hobetzeko asmoz. |

# 5.17 konpromisoa.- LANDA EREMUKO BIODIBERTSITATEA + PLANA INPLEMENTATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Miren Fernández de Landa |
| **SAILA** | Espazio Publikoa eta Auzoak. Landa Eremuaren Zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Badaiako artadien kudeaketa eta hobekuntza<br><br>Landa eremuko biodibertsitatea kontserbatzeko eta areagotzeko programak |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Azken urteetako lehortearen ondorioz, Badaia mendilerroko artadiko zuhaitzak hondatzen ari direla nabaritu da. Aldaketa klimatikoarekin lotutako fenomeno horren jarraipena egingo da, basoan duen eragina arintzeko balioko duen kudeaketa zehaztu ahal izateko.<br><br>Kontzejuekin eta nekazari eta abeltzainekin batera egindako programa, biodibertsitatea kontserbatu eta areagotuko duena nekazaritza eta basozaintzako kudeaketa-teknika jasangarriak aplikatuz. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Kontzejuekin eta nekazari eta abeltzainekin lan egiteko bilkura eta saioak. |
| Jarduera fotosintetikoaren ebaluazioa, teledetekzio bidez. |
| Afektazio handiagoko zonak zehaztea eta karakterizatzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Landa eremuko zuhaiztiak errekuperatzea eta hobetzea eta biodibertsitatea hobetzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 15. HELBURUA: Lehorreko bizitza<br>15.1: Hemendik 2030era, lurreko ekosistemen eta ur gezaren barne-ekosistemen eta horien zerbitzuen zaintza, berrezarpena eta erabilera jasangarria bermatzea, bereziki hauena: basoak, hezeguneak, mendiak eta gune lehorrak; hori guztia, bat etorriz nazioarteko hitzarmenen bidez ezarritako betebeharrekin. |

| ARDATZA | LAN-ESPARRUAK | KONPROMISOAK |
|---|---|---|
|  6 GOBERNU GERTUKO ETA ERAGINKORRA  | Herritarren partaidetza eta gardentasuna | Herritarren partaidetzaren plana (2023-2027) lantzea |
| | | Vitoria-Gasteiz Hobetuz programa indartzea |
| | | Zozketa baliatuz osatutako herritarren asanbladen bidezko prozesuak bultzatzea |
| | | Aurrez aurreko arreta hobetzea |
| | | Kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko tresna teknologikoak sartzea |
| | | Herritarren karpeta abian jartzea |
| | Kudeaketa eraginkorra | Udal-eraikinen mantentze-kontratuen kudeaketa optimizatzea |
| | | Datuaren udal bulegoa diseinatu eta ezartzea |
| | | Zibersegurtasuna handitzeko neurriak ezartzea |
| | | Lizentzien tramitazioa arintzea |
| | | Ogasunaren lau urteko Kudeaketa-plana garatzea |
| | | Funtzio publikoa modernizatzeko plana garatzea |

# 6. ardatza: Gobernu gertuko eta eraginkorra

Udal hurbilago eta eraginkorragoa lortzeko lan egiten dugu. Toki-administrazioa eraginkorra izango da herritarrekiko harremanetan, arreta arina eskaintzeko gai izango dena eta administrazio-izapide gutxiago izango dituena.

Eta hori digitalizazio-prozesuei esker egingo dugu, baina aurrez aurreko harremanaren eta arretaren maitasuna galdu gabe; batez ere, teknologia berriak erabiltzeko zailtasun handienak dituztenekin.

Gainera, gure gobernantza publikoaren eredua indartzen jarraituko dugu, herritarren parte-hartze sistema berrikusten eta hobetzen, eta egunetik egunera pertsona gehiagorengana iristea ahalbidetuko diguten metodologia berriak txertatzen.

Entzuten duen eta parte-hartzea sustatzen duen udala eraginkorragoa da.

# 6.1 konpromisoa. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PLAN BERRIA (2023 - 2027)

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Miren Fernández de Landa |
| **SAILA** | Gobernu Irekia eta Gizarte Etxeak |
| **HELBURUAK** | Herritarrek parte hartzeko udal-sistema hobetzea.<br><br>Pertsona eta eragile berriak erakartzea Udalak sustatutako partaidetza-prozesu eta -uneetara. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteizko Udalak herritarren partaidetzarako eredu osoenetako bat du, duela hamarkada batzuk jarri baitzen abian, eta aitorpen ugari jaso baitu.<br><br>Datozen urteei begira, gure erronka da parte hartzeko plan berri bat egitea, gure eredua hobetzen jarraitzeko osagai nagusiak jasoko dituena.<br><br>Nagusiki, partaidetza-prozesuetara pertsona eta erakunde gehiago erakarri nahi dira, eta metodoan eta prozesuen dinamizazioan hobekuntzak egin. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Udal-taldeekin eta eragileekin batera egindako lana, plana egiteko. |
| Parte hartzeko plana idatzi eta aurkeztea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Parte hartzeko, informatzeko eta herritarrei entzuteko tresna berri eta eraginkorragoak eskaini nahi dira, beren beharrak eta proposamenak planteatzeko bide eraginkorrak izan ditzaten. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16.6 HELBURUA: Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.<br><br>16.7 HELBURUA: Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzezkoak eta errepresentatiboak hartuko direla bermatzea, maila guztietan. |

# 6.2 konpromisoa.- VITORIA-GASTEIZ HOBETUZ PROGRAMA INDARTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Miren Fernández de Landa |
| **SAILA** | Gobernu Irekia eta Gizarte Etxeak |
| **HELBURUAK** | Auzoetako herritarrei beren eskaerak bideratzeko aurrekontu-tresna bat eskaintzea.<br><br>Parte hartzeko metodologia eta hautatutako proiektuen kudeaketa hobetzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gasteiz Hobetuz programa udalak sustatzen dituen prozesu parte-hartzaile guztien artean arrakastatsuena bihurtu da.<br><br>Proiektuak proposatzen du parte hartzeko prozesuan hobekuntza metodologikoak ezartzen jarraitzea, bai proposamenak egiteko fasean, bai proposamenak hautatzeko eta bozkatzeko fasean.<br><br>Gainera, hautatutako proiektuak ezartzeko prozesua hobetuko da, eta arinago landuko dira proiektuak eta eraikuntza-faseak, hala dagokionean. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Deialdiak abiaraztea. |
| Proiektuak hautatzea eta obrak gauzatzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Herritarrek beren auzoarentzat eta hiri osoarentzat interesgarriak diren proiektu eta ekimenak hautatu ahal izango dituzte, herritarrek aukeratutako proiektuak gauzatzeko udal-aurrekontuaren zati bat erreserbatzen duen partaidetza-prozesu baten bidez. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16.6 HELBURUA: Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.<br><br>16.7 HELBURUA: Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzezkoak eta errepresentatiboak hartuko direla bermatzea, maila guztietan. |

## 6.3 konpromisoa. ZOZKETA BALIATUZ OSATUTAKO HERRITARREN ASANBLADEN BIDEZKO PROZESUAK BULTZATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Miren Fernández de Landa |
| **SAILA** | Gobernu Irekia eta Gizarte Etxeak |
| **HELBURUAK** | Horrelakoetan parte hartu ohi ez duten eragile eta herritar berriekin prozesuak sustatzea.<br><br>Partaidetzazko erabakiak hartzeko prozesuetan tresna berritzaileak eta eraginkorragoak erabiltzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Herritarren asanbladak, herritarren epaimahaiak eta abar aspalditik sendotutako partaidetza-tresnak dira, eta arrakastaz funtzionatu dute beste hiri eta udalerri batzuetan.<br><br>Proiektuak planteatzen du agintaldian zehar gutxienez mota horretako prozesu bat sustatzea hiriarentzat interesgarria den gai baten inguruan.<br><br>Ausaz hautatutako herritar-talde bat deliberazio-prozesu informatu baten parte izango da, eta, ondoren, irizpen bat emango du, administrazioak kontuan har dezan. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Gaiak hautatzea. |
| Partaidetza-prozesua egitea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Metodo eraginkor, berritzaile eta plurala izatea, intereseko gaien inguruan eztabaidatzeko eta konponbideak proposatzeko. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16.6 HELBURUA: Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.<br><br>16.7 HELBURUA: Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzezkoak eta errepresentatiboak hartuko direla bermatzea, maila guztietan. |

# 6.4 konpromisoa AURREZ AURREKO ARRETARAKO KANALA HOBETZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Miren Fernández de Landa |
| **SAILA** | Gobernu Irekia eta Gizarte Etxeak |
| **HELBURUAK** | Arreta pertsonalagoa eta kalitatezkoa eskaintzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Aurrez aurreko arreta bihurtu da azken urteotan herritarrek administrazioari egiten dioten eskaera nagusietako bat, eskaintzen den arretari dagokionez.<br><br>Gizartea apurka-apurka zahartzen ari da, eta, horren ondorioz, beharrezkoa da teknologia berriekin moldatzeko zailtasun gehien duten pertsonei arreta egokia bermatzea. Beraz, herritarrei arreta emateko zerbitzutik, hainbat hobekuntza egingo dira aurrez aurreko arreta indartzeko eta zabaltzeko, eta, bereziki, adinekoei emango zaie lehentasuna. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Protokoloa/jarduera-multzoa lantzea. |
| Hartutako neurrien inplementazioa, jarraipena eta ebaluazioa. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Herritarrek, oro har, eta adinekoek, bereziki, hobetu egingo dute udalak ematen dien arreta, eta erakunde horrekin egin beharreko izapideak erraztuko zaizkie. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16. HELBURUA: Bakea, justizia eta erakunde sendoak.<br><br>16.6 HELBURUA: Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan. |

## 6.5 konpromisoa.- LAN-PROZESUAK ERAGINKORTASUNEZ KUDEATZEKO TRESNA TEKNOLOGIKOAK SARTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Diaz de Corcuera |
| **SAILA** | Administrazioa Modernizatzea. |
| **HELBURUAK** | Administrazio-prozesuak erraztea eta automatizatzea<br><br>Eraginkortasuna hobetzea zerbitzu publikoak ematean. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | «Eraginkorragoak izatea, izapideak gutxitzea, prozesuak automatizatzea eta kudeaketak sinplifikatzea», bai erakundeko langileentzat, bai herritarrentzat.<br><br>Adimen artifizialeko tresna berrien bidez (machine learning), optimizatu eta automatizatu egin nahi ditugu administrazio-prozesu batzuk, hartara, herritarrei arreta egiteko baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzeko. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Prozesuak robotizatzeko proiektu pilotuak identifikatzea |
| Ebaluatzea, hobekuntzak ezartzea eta hedatzen jarraitzea |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Hobetu egingo dira administrazioak herritarrei arreta emateko denborak. |

| | |
|---|---|
| **GAREAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16.6 HELBURUA: Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan. |



## 6.6 konpromisoa. -HERRITARREN KARPETA ABIAN JARTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Diaz de Corcuera |
| **SAILA** | Administrazioa Modernizatzea. |
| **HELBURUAK** | Espazio bakar eta ordenatua eskaintzea, herritarrek udalarekin egin beharreko izapideak kudeatzeko. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Zinegotziak iragarritako konpromisoen artetik nabarmentzekoa da Herritarren Karpeta abian jartzea. Horren bitartez, administrazioan irekitako prozedurei, jakinarazpenei edo dosierrei buruzko informazioa modu seguruan jaso ahal izango dute herritarrek.<br><br>Era berean, dagoeneko beste administrazio batzuetan martxan dagoen karpeta horren bidez, izapide hauek egin ahalko dituzte herritarrek: administrazioarekin bideratuta dituzten dosierrak eskuratu, jakinarazpenak eta komunikazioak jaso, eta ordainketak zein ziurtagiriak kontsultatu. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Herritarren Udal Karpeta garatzeko aukera tekniko egokiena definitzea. |
| Dosier elektronikoak Herritarren Karpetan sartzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Herritarrek espazio pertsonal bat izango dute, eta bertan erregistratuta geratuko dira udalarekin dituzten harreman nagusiak. Honi esker, beren izapideei buruzko informazio osoa eta eguneratua izango dute. Gainera, arinago egin ahalko dira hainbat izapide. |

| | |
|---|---|
| **GAREAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16.6 HELBURUA: Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan. |

# 6.7 konpromisoa.- UDAL ERAIKINEN MANTENTZE-KONTRATUEN KUDEAKETA OPTIMIZATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | César Fernández de Landa |
| **SAILA** | Administrazioa Modernizatzea. Mantenimendu zerbitzua |
| **HELBURUAK** | Kostuak gutxitzea.<br>Baliabide propioen kudeaketa eraginkorragoa lortzea.<br>Aldizkako 14 garbiketa-kontratu egitetik 8 egitera pasatzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Gaur egun, Garbiketa Zerbitzuak aldian behingo 14 garbiketa-kontratu izapidetzen ditu udal zentroetaN.<br>Kontratu kopuru handi horrek lan handia dakar izapidetze teknikoari eta administratiboari dagokienez.<br>Kontratu elektrikoei dagokienez, merkatu elektrikoaren bilakaera zaintzea eta prezioen etengabeko azterketa egitea, kontratazio-mota egokitzeko, merkeena eta efizienteena izan dadin.<br>Azken batean, beharrak banan-banan aztertzea, eta horren arabera erabakitzea energia erosteko esparru-akordioari atxikitzea edo udalak zuzenean kontratatzea. |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Dauden kontratu guztien egoera aztertzea. |
| Kontratazio-esparru berria planifikatzea, kontratuen epemuga-egutegiaren arabera. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Jarduerak kostuak gutxitzea du helburu, eta, ondorioz, udalaren diru-kutxak aurrezpen ekonomikoa izatea. Gainera, giza baliabideen kudeaketa eraginkorragoari esker, mantentze zerbitzua hobetzeko interesgarri izan daitekeen beste eremu batzuetara bidera daiteke, kontratuak kudeatzeko denbora eta langile-kopurua murriztuta. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16.6 HELBURUA: Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan. |

## 6.8 konpromisoa.- DATUAREN UDAL BULEGOA DISEINATU ETA EZARTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Ana López de Uralde |
| **SAILA** | Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasuna, Administrazioa Modernizatzea sailaren laguntzaz. |
| **HELBURUAK** | Datu publikoei etekin handiagoa ateratzea, kudeaketa eta barne-prozesuak hobetzeko<br><br>Herritarrei eta erakundeei kalitatezko datu-multzoak eskaintzea, beren jarduerak garatzeko. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Udalean datuaren bizi-ziklo osoaren tratamenduan espezializatutako atal bat izatea du helburu.<br><br>Proiektuak udaleko hainbat datu-multzo identifikatu eta tratatuko ditu, batez ere udalaren kudeaketarako balio eta interes handiena duten datuak.<br><br>Datu-multzo horiek kudeaketa-prozesu batetik pasatuko dira, eta bertan horien kalitatea, segurtasuna eta biltegiratzea landuko dira, gero udal-zerbitzuek erabil ditzaten; babes beharrik ez duten datuak badira, berriz, hirugarrenek erabil ditzaten.<br><br>Administrazio Modernizatzeko Saila arduratuko da bulego hori sortzeko eta finkatzeko laguntza teknikoa eta teknologikoa emateaz. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Datuaren bulegoaren egitura teknikoa (langileak, tresnak) eta datuak kudeatzeko egitura prestatzea. |
| Balio estrategikoa duten datu-multzoak identifikatzea |
| Proiektu pilotuen bitartez abian jartzea. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Datuak modu egokian kudeatzen dituen administrazioa administrazio eraginkorragoa ere bada, areagotu egiten baititu ezagutza-maila eta erantzuteko zein aurre hartzeko gaitasuna. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16.6 HELBURUA: Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan. |

## 6.9 konpromisoa.- ZIBERSEGURTASUNA HANDITZEKO NEURRIAK EZARTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Sonia Diaz de Corcuera |
| **SAILA** | Administrazioa Modernizatzea. |
| **HELBURUAK** | Udal-jabetzako datuen segurtasuna hobetzea.<br><br>Egonkortasuna eta segurtasuna bermatzea zerbitzuak ematean. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Zibersegurtasuna enpresa, administrazio eta herritarren helburu nagusi bilakatzen ari da.<br><br>Gizartea gero eta digitalizatuago dago, eta, aldi berean, pairatzen ditugun delituek eta mehatxuek mundu digitalean dute jatorria.<br><br>Administrazioa ez dago mehatxu horietatik kanpo, eta bermatu egin behar du funtsezko zerbitzuak ematen direla, eta datu sentikorren eta balio handiko datuen multzoak zaindu behar ditu. Hori dela eta, beste erakunde batzuekin eta zibersegurtasuneko euskal zentroarekin koordinatuta lan egingo da udalaren-zibersegurtasuna hobetzeko.<br><br>Neurriek honako hauek barne hartzen dituzte: informazioa biltegiratzeko sistema hobetzea, tresna teknologikoak ezartzea eta udal-langileak prestatzea (baita herritarrak eta tokiko enpresak ere). |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Zibersegurtasun Eskema Nazionalera egokitzera. |
| Betebeharrei azpiegitura kritiko gisa erantzuteko neurri teknikoak abian jartzea. |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Udal ziberseguruak funtsezko zerbitzuak, trafikoa, argiztapena, ura, herritarrekiko eta enpresekiko eguneroko kudeaketa eta abar ematen direla bermatzen du.<br><br>Era berean, herritarrei eta erakundeei buruz dituen datuak modu seguruan zaintzen ditu udal ziberseguruak. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 16.6 HELBURUA: Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan. |

# 6.10 konpromisoa.- LIZENTZIAK IZAPIDETZEKO PROZESUA ARINTZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Borja Rodríguez Ramajo |
| **SAILA** | Hiri Eredua, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumena |
| **HELBURUAK** | Obra-lizentziak eta jarduera jakin bat legalizatzeko gaitze-agiriak izapidetzeari buruzko udal-ordenantza onestea.<br><br>Dosierrak izapidetzeko tresna informatikoak hobetzea.<br><br>Jarduerak legeztatzeko tramitazioa arintzea. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Lizentziak izapidetzeko prozesua arindu eta horiek emateko epeak murriztu beharrean gaude, nahitaez; izan ere, horien izapidetzea eta ebazpena arintzeak sendotu egingo ditu jarduera ekonomikoa, enplegua eta ekintzaileta.<br><br>Hirigintza-araudian nahasgarri gerta daitezkeen irizpideak interpretatzen laguntzeko agiri bat osatzea. Agiri hori Udalaren webgunean egongo da eskuragarri, eta aldian behin eguneratuko da, kolektibo profesionalei –bai eta herritarrei oro har ere– laguntzeko asmoz, proiektuak berme handiagoz eta arinago egin ahal daitezen. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Aplikatu beharreko irizpide legalak interpretatzeko dokumentua osatzea. |
| Lizentziak izapidetzeko gida praktikoa osatzea. |
| Inplikatutako eragileekin bilerak egitea. |

| HERERITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Hiriko jarduera ekonomikoa zein industriala bultzatzea eta sendotzea. |
| Enplegua sortzea eta ekintzailetzari bide egitea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 11. HELBURUA: Hiri eta komunitate jasangarriak. |

## 6.11 konpromisoa.- OGASUNAREN LAU URTEKO KUDEAKETA PLANA GARATZEA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Jon Armentia |
| **SAILA** | Ogasuna |
| **HELBURUAK** | Garapen Iraunkorreko eta Ekonomia Zirkularreko Helburuak bultzatu eta garatuko dituzten aurrekontuak egitea, pertsona eta familia ahulenekiko babes- eta lankidetza-ikuspegia bereziki kontuan hartzeko konpromisoarekin, sail, unitate eta zerbitzu desberdinen parte-hartzearekin, erantzukizunetik eta lidergotik abiatuta.<br><br>Fiskalitate sozialagoa diseinatzea, genero-ikuspegiarekin, berdea eta progresiboa Ordenantza fiskaletan eta urteko aurrekontuetan.<br><br>Gastua eraginkortasun- eta jarduera-parametroen arabera kontrolatzea.<br><br>Aldaketak sartzea agintarien prestakuntza, diziplina-kultura eta kontuak emateko antolaketa-kulturan (jardunaren ebaluazioa). |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Udal Administrazio Publikoa modernizatzea, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen arreta optimizatuz, eta, aldi berean, zeharkako eta lankidetzazko laboer baten bidez, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna lortuz. |

| MUGARRI NAGUSIAK |
|---|
| Gastu-araua mantentzea. |
| Aurrekontu-administrazioa, zerga-ordenantzak eta kontabilitate orokorra modernizatzeko neurriak. |
| Zergen Kontabilitate, Bilketa eta Ikuskaritza sailetan ezartzeko neurri berriak. |

| HERRITARRENTZAKO ONURAK |
|---|
| Udal-langileek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak hobetzea, haien motibazio profesionala, produktibitatea eta soldata hobetzen direlako. |
| Gastu publikoa arrazionalizatzea, herritarren parte-hartzearen eta lankidetzaren ikuspegiak kontuan hartuta. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 8. HELBURUA: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.<br><br>9. HELBURUA: Industria, berrikuntza eta azpiegitura.<br><br>10. HELBURUA: Desberdintasunak murriztea<br><br>16. HELBURUA: justizia eta erakunde sendoak<br><br>17. HELBURUA: Helburuak lortzeko aliantzak. |

## 6.12 konpromisoa.- FUNTZIO PUBLIKOA MODERNIZATZEKO PLANA

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZI ARDURADUNA** | Jon Armentia |
| **SAILA** | Funtzio Publikoa |
| **HELBURUAK** | Bitartekotasun-tasaren murrizketan aurrera egitea, indarreko legeriak ezartzen duen % 8ra iritsi arte.<br><br>Plantilla gaztetzeko, belaunaldi-erreleborako eta ezagutza kudeatzeko neurriak (udal-langileen kudeaketa adimenduna, administrazio publikoen eraberritzeko).<br><br>Lanpostuen balorazioa. Beharrezkoa da 2024an udal-lanpostuen artean dauden aldeak objektiboki eta behar besteko motibazio teknikoz neurtzea, lanpostu zerrenda berritu bat izateko (akordio bidez kudeatuta).<br><br>Aurrekontu-plantilla egonkortzea, eta absentismo-tasa eta txandakatze-tasa murriztea.<br><br>Antolaketa-kulturan aldaketak sartzea, agintarien prestakuntza, diziplina-kultura eta kontu-ematea (jardunaren ebaluazioa) integratzeko. |
| **KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA** | Udal Administrazio Publikoa modernizatzea, hauen bitartez: herritarrei emandako zerbitzuen arreta optimizatzea eta, aldi berean, udal-plantillaren baldintzak hobetzea, bake sozialaren eta nahitaez negoziatzailea den kultura sozialdemokrataren testuinguruan (Hitzarmen Kolektibo Berria) |

| **MUGARRI NAGUSIAK** |
|---|
| Estatuko Gobernuak agintzen duen % 8tik beherako bitartekotasun-tasa. |
| Belaunaldi-erreleboko eta plantilla gaztetzeko neurriak, gizarteak eskatzen dituen lanbide-profiletara egokitzeko. |
| Lanpostuen balorazioa, non jardun indibidualaren baldintzak zuzentasunez arautuko diren (karrera profesionala eta jardunaren ebaluazioa). |

| **HERRITARRENTZAKO ONURAK** |
|---|
| Udalak herritarrei ematen dizkien zerbitzuak hobetzea, hobetu egiten baitira lanbide-motibazioa, produktibitatea eta soldata (inguruko gainerako administrazioekin pareka daiteke). |
| Gastu publikoa arrazionalizatzea, neurri hauen bitartez: 23/27ko udal-plantillaren gehiegizko tamainari eustea, eta udalaren sailetako lanpostuetan balio-aniztasun profesionala eta mugikortasuna sustatzea. |

| | |
|---|---|
| **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK** | 8. HELBURUA: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa<br><br>8.5. Enplegu osoa eta produktiboa zein lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea.<br><br>16. HELBURUA: Bakea, justizia eta instituzio sendoak |